talaia

gogoetarako gunea

6. zkia

2018ko azaroa

# Turismo eredua, hamaika ertz dituen eztabaida

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga• Idurre Lukas Ezkioga • Maddi Arrieta Laka
Agurne Gaubeka Erauskin & Haizea Solagurenbeaskoa Alkorta • David Avril Hervás
China C. Cabrerizo • Blanca Valdibia Gutierrez & Sara Ortiz Escalante

iparhegoa
Ikasketa Sindikaletarako Fundazioa

LAB
ekintza soziala

Talaiaren 6. alea duzu esku artean. Gogoetarako gunea da guretzat Talaia. Argitalpen bat ez ezik, hausnarketa eta eztabaida esparru fisiko ere bada. LAB-eko Ekintza Sozialeko aparatuak eta Ipar Hegoa Fundazioak gogoeta eta formazio politiko eta sozialerako egiten dizugun eskaintza izan nahi du eta tarteka halako argitalpenak izango dituzue eskura, baina baita mintegiak eta elkartrukerako espazio fisikoak ere.

Norabide horretan, bitarteko berri bat ireki genuen joan den ikasturtean, eta oraingoan ere eskuragarri egongo da: Ikasgela Birtuala. LAB sindikatura afiliatutako edonork www.iparhegoa.eus webgunetik ikasgelara sartu eta gaiari buruzko material osagarria, hausnarketarako ariketak zein eztabaida-guneak izango ditu eskuragarri.

Ale honi dagokionez, azkenaldian hautsak harrotu dituen gai bat dugu hizpide: turismo-eredua. Duela urte gutxi erabiltzen ez genituen kontzeptuek gure egunerokotasuna blaitu dute: turistifikazioa, gentrifikazioa, airb&b, ekonomia kolaboratiboa, lowcost turismoa, esperientziak gora eta behera... Arrazoi desberdinak medio, asteburu, zubi zein opor-garaietan gure hiriak eta herri asko turistaz lepo daude eta ondorioak ezin agerikoagoak dira. Turistak herritarren tokia hartzen ari dira eta bizitza garestitzen ari da. Enplegua sortu bai, baina baldintzak kaskartzen. Pisu turistikoek alokairu puztuak ordezkatzen dituzte. Gutxika, mugimendu desberdinak antolatzen hasi dira eta eztabaidak irekitzen: turismoa ala turismo-eredua, zein da arazoa? Kontraesanez beteriko eztabaida dirudi, denok turistak omen.

Kalapita azken uda parteetan piztu arren, turismoa ez da berria gure herrian. Markel Ormazabalek, Baiona eta Donostia abiapuntu hartuta, turismoaren garapena azalduko digu. China C. Cabrerizorekin turismoak neoliberalismoan betetzen duen paperean sakonduko dugu. LABeko ekintza sozialeko Maddi Arrietari egokitu zaio turistifikazioak gurean dituen ondorio kaltegarriez mintzatzea. Col·lectiu Point 6eko Blanca Valdiviak erradiografia feminista egingo dio fenomenoari, emakumeongan duen inpaktua neurtuz. Federazio pribatuko Agurne Gaubekak eta Haizea Solagurenbeaskoak jarduera turistikoetan ematen diren lan baldintzen eta LAB garatzen ari den ekintza sindikalaren berri emango digute. Turismo jasangarrian aholkularitza ematen duen Bizibiziki elkarteko Idurre Lucasek beste turismo eredu baterako gakoak emango dizkigu, eta, azkenik, Mallorcako Darder-Mascaró fundazioko David Abrilek estatuak turismoa herrien burujabetza ebasteko nola baliatzen duen konpartituko du gurekin.

Tienes entre manos el sexto número de Talaia, en el que tratamos un tema espinoso, cada vez más presente en nuestras vidas y debates: **el modelo turístico**. Es un tema complejo, **con muchos matices y en el que confluyen diversos procesos,** los cuales queremos tratar en estas páginas. El turismo no es nuevo en Euskal Herria y por eso haremos un repaso histórico de su desarrollo. Profundizaremos en las lógicas neoliberales del modelo imperante y sus consecuencias tanto a nivel general, como a nivel de país. Centraremos nuestras miradas en las consecuencias que tiene específicamente sobre las mujeres y en el mundo laboral. Analizaremos el turismo como instrumento de asimilación. Pero también reflexionaremos sobre cuales deberían ser las bases para construir otro modelo.



3 Jon Markel Ormazabal Gaztañaga



7 China C. Cabrerizo



11 Agurne Gaubeka Erauskin & Haizea Solagurenbeaskoa Alkorta





16 Blanca Valdibia Gutierrez & Sara Ortiz Escalante



19 Maddi Arrieta Laka



22 Idurre Lukas Ezkioga



25 David Avril Hervás

Aldizkari honen edukiak Creative Commons-Aitortu-Partekatu berdin lizentzia baten pean daude.

Lizentzia honekin, edukiak kopiatu, banatu eta erakutsi zein lan eratorriak egin ahal izango dituzu, beti ere ondorengo balditzak betez:

- Edukiaren jatorrizko egilea aipatu behar duzu.
- Edukiaren aldaketarik egiten baduzu, edo lan eratorri bat sortzen baduzu eta hau banatzekotan, honako lizentzia honen baldintza beretan egin beharko duzu.

Los contenidos de esta publicación están bajo licencia Creative Commons - Reconocimiento - Compartir igual.

Con esta licencia eres libre de compartir, copiar y redistribuir el material así como de crear trabajos adaptados, siempre bajo las siguientes condiciones:

- Debes reconocer adecuadamente la autoria.
- Si creas un trabajo derivado, debes difundir las contribuciones bajo la misma licencia que el original.



# Euskal Herriko TurismoAroak pentsatzen

## Jon Markel Ormazabal Gaztañaga

### Soziologoa eta turismoaren eraginen aurkako plataformetako kidea

**IRUTXULOKO HITZA** | CC BY-NC-ND

Azken bosturtekoan gurera heldu den bisitari kopuruak turismoa atzera eztabaida publikoaren lehen lerroan paratu du. Turisten etorrera masiboak ageriko ondorioak ditu hartzaileen egunerokoan, eta aspaldi ez bezala aditu dira bizilagunen ezinegon eta ondoezak. Turismoa ez da fenomeno berria, baina egun inoizko hedapen handiena agertzen du, inoiz baino eremu gehiago eragiten ditu, eta ondorioz, sekula baino herritar gehiagok nozitzen dituzte jarduera honen ondorioak. *Turistizazio-prozesuak* euskal lurraldearen luze-zabalean antzeman daitezke eta etengabe sortzen dira helmuga-turistiko berriak; Euskal Herria bera ez ote den helmuga-turistiko erraldoia bilakatu.

XXI. mendeko turismoak izaera hedakorra eta orojalea badu ere, ez da beti hala izan. Turismoa ez da gizakiaren jarduera *betikoa*, are gutxiago *berezkoa*. Egitate soziala da, garai eta kolektibitate jakin bati loturik dagoen asmakuntza, eta beraz, egun agertzen duen forma ulertzeko ezinbestekoa izango da fenomenoaren garapen historikoa aintzat hartzea.

**JON MARKEL ORMAZABAL GAZTAÑAGA** (Donostia-Parte Zaharra, 1982) soziologoa da, baita "*BiziLagunEkin* (turismo ereduarekin kezkatutako donostiarren plataforma)" eta "*SET sarea*" (turistizazioak eragindako Europa hegoaldeko hirien sarea) kolektiboetako kidea ere.

### MODERNITATEKO BIDAIA BEREIZKETA-ASMAKUNTZA BEZALA

Turismoa asmakuntza modernoa da, modernitateari keinuka egiten dio. Are, gizarte modernoaren hedapen enpiriko eta ideologikoa estuki lotua dago masa-aisialdi modernoarekin, eta zehatzean, mundu mailako turismoarekin.

Turismoaren sorrera bereizkuntzarekin lotzen da. Iraultza-liberala eta industria-iraultza ditu genesian eta jatorria XVIII. mendeko Ingalaterran. Garaiotan bidaiatzeko arrazoi berriak agertu ziren, eta **bidaiaren zentzua aldatzearekin, bidaiariaren profila ere aldatu egin zen**. Bidaia bereizkuntzarako bitartekoa bilakatu zen, bidaiatzeak bereizi egiten zuen gizarte-talde bat edo bestea, eta laxotasunak ezaugarritzen zituen bidaiariak.

**Turismoaren bilakaera askotariko asmakuntza-, bereizkuntza-, jabetze-, antzeratze- eta itxuraldatze-prozesuen batura da**, eta agerian ditu egitate sozial bati dagozkion menerapen eta erresistentzia adierazleak. Ur-hartzeak edo garaikideagoa

den azal beltzarantzea, adibidez, garaian garaiko eliteen bizi-ereduek garraiaturiko idealak baizik ez dira. Masa-turismoa, gizarte-geruza zabalek turismo-bidaia estreinatu zuen klase sozialaren ohiturak imitatu izanaren emaitza besterik ez da.

## NOLAKO SORRERA, HALAKO BILAKAERA

Euskal Herrian ere, gizarte-antolaketa berriaren eta industrializazioaren arrastoan garatu da turismoa. Prozesuok ez dira leku orotan aldi berean halabeharrez jazo. Lurralde bakoitzean ezberdinak izan dira uneak, eta ezberdinak eraginak. Erregimen zaharretik berrirako igarobidea askotariko prozesu bat izan da. Antolaketa- eta funtzionamendu-modu berriak ez dira, ez aldi berean, ez eta era berean gauzatu, eta hauen ezarpena gizartean ez-uniformea eta partziala izan da. Halakoa ere turismoaren bilakaera.

## INDUSTRIA-TURISMOA ETA INDUSTRIA-TURISTIKOAREN HASTAPENAK

Turismo-sektorearen lehiakortasunak lurraldearen abantaila konparatiboetan datza, eta hauek, lurraldearen *berezko baliabideek* (baliabide naturalak, klimatologikoak…) eta *baliabide kulturalek* (tradizioak, ondarea…) edo *baldintza sozioekonomikoek* (eskulana, azpiegiturak…) emanak dira. Lehiakortasuna, finean, baliabide horiek modu eraginkorrean erabiltzeko gaitasunari lotuko zaio.

Sorburuan ditu bi baliabide natural: klima eta ur narotasuna. XVIII. mendeko Mugimendu Higienistak balioan jarri zituen ur-hartzeak edo klima itsastarra eta hauen ustezko propietate sendagarriak, eta garaiko modari jarraitu zioten ikerketa nahiz teoriek, famatu egin zituzten bainuetxeak eta hondartzak. Kantauriar eskualdea Iberiar penintsulako klima hezeko eskualde nagusia da eta iturri termal ugari biltzen ditu, helmuga aproposa uda sasoiko sapatik ihesi egiteko.

**Turistizazio edo turistifikazio:** erabilera turistikorik ez duten espazio edo objektuak turismo-gai bilakatzen dituen prozesua eta honek eragiten dituen aldaketa multzoa. Egun, mundua bere osotasunean eszenatoki-turistiko bat da, eta salbuespen gutxi batzuk baizik ez dira izango turistak erakartzeko ahaleginean ari ez direnak.

**Industria-turistikoa:** deslokalizazio-prozesu ugarik eta ezberdinek eratutako sistema. Bere adarkadurak gizarte-industrialaren eremu guzietara hedatzen dira. Bisitariak helmuga turistikoan erabiliko dituen zerbitzu eta gai guzien produkzioak osatzen dute; hala nola, turistak lekualdatzeko beharrezko garraio-garraiobideek edo baita eraikuntzaren sektoreak eta higiezinen espekulazioak ere.

**Produktu-turistiko:** esperientzia-turistikoak eta ondasun eta zerbitzu publiko nahiz pribatuen multzoak osatzen dute. Esperientzia-turistikoa, berriz, ohiko bizitokitik kanpo egiten duen bidaia eta egonaldian turistak hautemango eta antzemango duen errealitate integralari esaten diogu.



“Etengabe sortzen dira helmuga-turistiko berriak; Euskal Herria bera ez ote den helmuga-turistiko erraldoia bilakatu”

*“Industria-turismoa,* industrializazioaren garapenaren ondorioz jazotako espezializazio-prozesuen emaitza da”

1806an irekiko da Euskal Herriko lehen bainuetxea, Zestoan. Itsasertzean ere garai berean agertuko dira lehen azpiegiturak, hala nola hondartzako aldagelak. Industrializazio prozesuarekin harreman estuan, XVIII. mendeko politika liberalek aupatutako burgesiaren ekimena izango dira. Bestela esanda, *industria-turismoa,* industrializazioaren garapenaren ondorioz jazotako espezializazio-prozesuen emaitza da. Hastapenetan, nekazari handikiak eta merkatari nahiz errentatzaile txikiak izango dira ekonomia berri honen bezeria nagusia. Eragin ekonomikoa mugatua eta oso lokalizatua duten jarduerak dira oraindik, eta beraz, ezin *industria-turistiko* batez hitz egin.

## ERRET-TURISMOA ETA BALIO ERANTSIA

Lurraldearen berezko baliabideek soilik

## hiztegitxoa

**Gentrifikazio:** gentry ("klase aberatsa" edo hirietako aberatsak) hitzetik eratorritako ingelesezko mailegua, maiz sinonimo gisa erabili dira burgestea, eliteko bihurtzea edo garestitzea, besteak beste. Denboran zehar gertatzen den prozesua da, bereziki eraikin degradatuak dituzten auzoetan lurzoruaren prezioaren gorakadaren ondoriozko espekulazioak sorrarazitakoa. Hitzak, finean, ordezkatze-prozesu bati egiten dio erreferentzia: gutxiago irabazten dutenek, langile, langabe, ikasle eta erretiratuek, betiko auzoa utzi behar izaten dute, gehiago ordain dezaketen klase sozialek begiz jo dutelako.

**Akulturazio:** bi kultura-sistema edo gehiago beregain kontaktuan jartzean gertatzen den aldaketa kulturala. Gizarte-harremanen prozesu konplexuen ondorio izan ohi da. Ahulenak, zenbaitetan, kultura-autonomia gordetzen du, baina, gehienetan, ahaltsuenak asimilatzen du ahulena (Antropologia hiztegia, 2014. UPV/EHU)



ez dute helmuga-turistikoaren arrakasta ziurtatzen. Beharrezkoa da produktuari balio erantsia emango dioten mekanismoak sakatzea, eta hain zuzen ere, ospe handiko bisitarien erakarmenak bilakatu zituen euskal lurraldeak XIX. mendeko "*produktu-turistiko*".

1845. urtea mugarria da, Isabel II. espainiar erreginak Donostia hautatu baitzuen itsas bainuak hartzeko lekutzat. Erret etxearen bisitek helmuga-turistikoari emango dioten balio erantsiak, XIX. mendeko turismo espainiarraren hiriburu eta erreferentzia egingo dute, Donostia ez ezik, baita euskal kostaldeko beste hainbat herri ere, Deba eta Zarautz, kasu. Ordurako Miarritzek aristokrazia eta elite ekonomikoei zuzendu turismo-zerbitzu sare garrantzitsua zuen. Baina egiazko ospea, Napoleon III. eta Eugenia de Montijoren ezkontzaren ondotik helduko da, 1855an eta kondesaren gurariz Villa Eugénie udako palazioa eraikitzean.

> "Ospe handiko bisitarien erakarmenak bilakatu zituen euskal lurraldeak XIX. mendeko produktu-turistiko"

> "Hiri-espazioaren berrantolaketa honek, era berean, erdialdea eta aldirien arteko ezberdintasunak areagotu zituen"

Industrializazioaren ondoriozko espezializazio-prozesuek Ipar Euskal Herriko turismo-sektorearen hazkunde nabarmena ekarri zuten, baina baita jarduera tradizionalen atzerakada eta desegituraketa-ondorio handiak ere. Hegoaldean berdinak izan ziren dinamikak, eta berdinak ere mugaren alde bietako gizarte-antolamenduan izan zituen ondorioak. Are sakonago egin zituen gizarte-ezberdintasunak, agerikoago eginez industrializazioarekin forma hartzen hasia zen klase gizartea.

### SOUS LA PLAGE, LA BELLE ÉPOQUE.

Bigarren Karlistaldiaren amaierak bide emango dio *Bigarren industria-iraultza* deiturikoari, eta 1870ko hamarkada agortzear, turismoak gorakada berri bat izango du. Energia-iturri berrien erabilerak industrializazioa bizkortu zuen. Elektrizitate-industria sortu zen, baita garraiobide eta komunikabide berriak ere. 1854an iritsi zen trenbidea Baionara. Madril-Donostia elkartu zituen Iparraldeko Trenbidea, berriz, 1864an estreinatu zen, eta 1878tik aurrera Bilbo eta portua sare berean konektatuak geratu ziren.

Hirietarako joera areagotu egin zen. Migrazioek sakon eragin zuten hiritartze-prozesuan, baita hirigintza-prozesuetan ere. Garai honetakoak dira hirietako zabaltze gehienak, hiri-burgesiak agertzen zuen dinamismoaren adibide. **Hirigintzaren paradigma berriak hiri-espazioa funtzionaltasunaren arabera banatzen zuen,** eta Miarritze edo Donostia, besteak beste, eremu espezializatuetan antolatu ziren, beren erdigune burges eta turistiko propioarekin. Hiri-espazioaren berrantolaketa honek, era berean, erdialdea eta aldirien arteko ezberdintasunak areagotu zituen, klase sozialen araberako hiri-geografia berri bat nabarmenduz.

Ekimen publikoak eta pribatuak batera aritu ziren turismo-sustapenean. Turismo-eskaintzak gora egin zuen eta turismo-establezimendu berri eta ugari sortu ziren, Donostiako Maria Cristina hotela, esaterako. **Turismo-denboraldia luzatzeko, bestalde, denbora-pasa berriak behar ziren,** eta XIX. mendearen amaieran jokoa bihurtu zen abantaila konpetitiboaren gakoa. 1880an Miarritzeko Villa Eugénie erosi zuen Banque Parisienne-k, eta kasino bilakatu. Donostiako Kasinoa, berriz, 1887an inauguratu zen.

**Turismoaren gorakadak zerbitzu eskaera berrien hazkundea ekarri zuen.** Lanbide berriak sortu ziren, zaintza-zerbitzuei lotutakoak asko, hondartzetako sorosleak kasu. *Garbitzaileak* hotel eta udatiarren etxeetako arropa zikinez arduratzen ziren. *Neskameak*, berriz, etxeko lan guztiez, halako edo besteko lan bereziez izan ezik. *Haurtzainak*, umezainak edo inudeak ere nabarmendu zituen turismoak. Langileen gehiengoa barnealdetik eta udatiar familia aberatsekin batera etorriko zen.

## "HOMO-TURISTICUS" ETA MASA-TURISMOA

Lehen Mundu Gerra amaitu eta ekonomiaren hazkunde betean, 1936an, Lanaren Nazioarteko Erakundeak langileen oporraldi ordainduaren aldeko lehen bilkura ospatu zuen, eta masa-turismoaren abiapuntua ezarri. Bizkitartean, oso bestelako egoera baten atarian aurkitzen zen Hego Euskal Herria. Bonbardaketak eta arekak, eta hartan-horretan, suak Irun nola errausten zuen ikusteko bidaia-gidatuak antolatuko ziren Lapurdiko kostaldean. "Gatibu eta armagabe gudaroste gorria", erregina-erregeen ohiturak antzeratu eta Franco diktadoreak ere Donostian igaroko zuen udaldia aurrerantzean.

Eta mundua bere martxan. Bigarren Mundu Gerra amaitua, **kontsumo-gizartea gailendu eta masa-kontsumoaren abantzu neurrigabearekin batera agertuko da masa-turismoa Mendebaldeko gizarte kapitalistetan.** Denboraren eta espazioaren erabateko konkistak batetik, eta gaitasun ekonomikoaren eta kontsumo ahalmenaren hazkundeak bestetik, inoiz ez bezala aupatuko dute turismoa. Gizarte post-industrialak, halaber, oporrak oinarrizko premia bihurtu zituen. *"Homo turisticus"*-aren garaiak dira, eta jarraian etorriko dira turismoaren "zorioneko hogeita hamar urteak" (1950-1980), *"El milagro español"* deiturikoa, baina baita gogoeta kritikoak, herri-mobilizazioak, edo Iparretarrak (IK) erakundearen sorrera ere.

> "Gizarte post-industrialak oporrak oinarrizko premia bihurtu zituen"

> "2007ko krisi osteko berregituraketa sistemikoan "turismoak adreilua salbatu du", diote"

## HARTAN-HORRETAN, TURISMOAK ADREILUA SALBATU ZUEN...

Gaur, hemen, turismoaren fenomenoaz pentsatzeko, modako helmuga-turistikoen egunerokoa erreparatzea baino zer argigarriagorik ez dago: hiri-ingurunearen nahiz ingurune naturalen hutsaltzea; *gentrifikazio-prozesuak*; kale eta plazen, hots, espazio publikoaren masifikazioa; higiezinen espekulazioa; behin-behineko gaien eta oro har egunerokoaren garestitzea; prekarietatearen hedatzea; *akulturazio-prozesuak;* kutsadura eta hondakinen sortze altua; garraio publikoko sarearen saturazioa; auzo-komunitateetako ehundura sozialaren deuseztatzea…

Aldaketa hauek ez dira ausaz sortutako errealitateak. Aitzitik, **ekonomia zehatz baten ondorio dira, eta zehatzago, espazioaren ekoizpen kapitalista jakin baten emaitza;** Ivan Miró ekintzaile eta ikerlariak *akumulazio turistiko-inmobiliarioa* deitzen duen erregimen berrian orokorturiko baldintza espaziala dira. Espazioa, hain zuzen ere, turismoaren garapenaren oinarria edo euskarria, eta aldi berean, produktu-turistikoa egiteko baliabidea da.

Turistizazio-prozesuak Europa luze-zabalean antzeman daitezke, baina inon ez hegoaldeko hiri eta erregioetan bezain nabarmen. Veneziak, Bartzelonak edo Lisboak, baita Donostiak, Baionak, Bilbok edo Iruñeak ere. Komunean dute finantza krisiaren kolpearen neurria, eta Caterina Borelli aktibista eta antropologo veneziarrak adierazi bezala, ezaugarri hau estu lotua dago turismoaren hedapen neurrigabearekin. **Turismoa "krisiari erantzuteko modu errazena baita".** 2007 osteko berregituraketa sistemikoan "turismoak adreilua salbatu du", diote. 2008an munduko ekonomia atzeraldi betean aurkitzen zela, turisten joan etorriek % 2 egin zuten gora, nazioarteko turismoaren mugarri berri bat ezarriz. Turismoaren Mundu Erakundearen (TME-UNWTO) arabera, urte hartan 924 milioi bidaiari izan ziren munduan zehar, eta aurre-ikuspenak bete ezkero, joera bera mantenduko da 2018an ere, % 4 eta % 5 arteko hazkunde-tasarekin. **Aterabide erraza eta azkarra inondik ere, baina batez ere, ispilatze maltzurra, prekarietatea betikotzeko bidea.** Zer pentsatzekorik ez dugu falta.



# Turismo, éxito o paradoja del capitalismo

## China C. Cabrerizo

### Investigadora-militante y activista-laboral

**CHINA C. CABRERIZO** es Doctora en geografía y autora del libro La ciudad negocio. Turismo y movilización social en pugna (Ed. Cisma Editorial).

Nos encontramos en un momento de cambio en lo que se refiere al debate y la percepción del turismo, un sector económico que en el Estado español tiene, desde hace décadas, un peso muy importante. Mientras que hasta hace relativamente poco tiempo eran escasas las voces que de forma crítica hablaban de turismo, hoy se multiplican desde diversos ámbitos sociales, llegando incluso a preocupar al propio sector. El turismo ya no es "esa actividad de cara amable", esa "industria verde que sólo trae beneficios", tal y como se enuncia en los discursos dominantes y se recoge en los imaginarios colectivos.

¿Qué es lo que ha ocurrido para que se esté produciendo este cambio en la percepción del turismo y la aparición de respuestas combativas? ¿Por qué ahora, si el modelo de desarrollo turístico es el mismo desde hace ya muchas décadas? ¿Estamos asistiendo a una más de las paradojas del capitalismo que, por ambición, termina reduciendo la distinción o éxito de "un producto"?

Un acercamiento poliédrico al turismo permite entenderlo en toda su complejidad, algo fundamental para poder construir a su vez un discurso combativo complejo. También permite conocer los mecanismos que lo han convertido en una de las actividades económicas más exitosas de la contemporaneidad y en uno de los principales dispositivos de poder y control territorial del capitalismo.

En efecto, el turismo es un éxito del capitalismo. Lleva décadas funcionando como estrategia "amable" para la incorporación de países y territorios a sus lógicas económicas, sociales y culturales. La propia Organización Mundial del Turismo (OMT) promueve el turismo como una de las pocas herramientas que los países empobrecidos tienen para su desarrollo. En el Estado español dicha estrategia fue implementada muy tempranamente – en la década de los años 50- promovida desde los organismos internacionales y en connivencia con el franquismo, iniciando la especialización en turismo e inmobiliario de nuestro modelo productivo.

Desde entonces, el sector no ha hecho más que crecer y consolidarse, así como el número de destinos turísticos. Los discursos dominantes en base a su capacidad como generador de riqueza (contribución al PIB y al empleo) han conseguido construir un gran consenso social y político en torno a los supuestos beneficios de

turismo pero que hoy, por primera vez en más de medio siglo, comienza a resquebrajarse. En todo caso, los datos macroeconómicos que arroja el turismo siguen siendo suficientemente poderosos para que nadie quiera pisar el freno. A nivel mundial, en el año 2017 se contabilizaron 1.326 millones de turistas internacionales[1], un 7% más que el año anterior, continúa contribuyendo al PIB con un 10,4% (8,3 billones de USA$)[2] y al empleo con otro 10%. El turismo supone el 7% del total de las exportaciones mundiales y el 30% de las exportaciones de los servicios[3]. Para el caso del Estado español las cifras son igualmente notables. De hecho, en el año 2017 por primera vez se posiciona como segundo destino mundial en número de llegadas de turistas internacionales, tras Francia y por encima de Estados Unidos. Este pasado año, llegaron a España 81,1 millones de turistas, un 8,6% más que en el 2016. La contribución al PIB es del 11,2% y al empleo del 13%[4].

Estos indicadores de medición clásica y conveniente convencen, a una opinión pública "totalmente entregada a lo cuantitativo", como dice Lewis Mumford, y a una administración pública que ha perdido en gran medida su potestad política frente a los capitales. Conscientes del potencial de esta actividad exitosa, los gobiernos incorporan en sus agendas políticas el fomento de la atracción de turistas e inversiones y, en consecuencia, el empleo. Un empleo que, en el caso de la hostelería, supone una de las ramas con salarios más bajos, mayores tasas de temporalidad, precariedad y falta de derechos laborales. Cabe recordar que, a pesar de esta competencia entre los "destinos turísticos" por atraer personas y del aumento de los datos de llegadas de turistas, el escenario fronterizo a nivel mundial se

> "Un acercamiento poliédrico al turismo permite entenderlo en toda su complejidad."

> "Los estados se arrogan el derecho "soberano" de limitar y seleccionar quién puede y quién no puede traspasar sus fronteras."

> "El turismo es una de esas actividades que le permite, al capitalismo, controlar el tiempo completo de nuestras vidas."

> "Cuando afecta a esa ciudad consolidada, aparece la pugna entre las vidas y los significados cotidianos de los residentes y los usos-placer de los visitantes."

> "La ciudad más lucrativa no es la ciudad donde viven los empobrecidos, sino la que pueden pagar los pudientes."

incrementa y se radicaliza. Los estados se arrogan el derecho "soberano" de limitar y seleccionar quién puede y quién no puede traspasar sus fronteras. Según datos de este año 2018, el 53% de la población mundial sigue necesitando una visa tradicional para viajar, más otro 16% que la debe gestionar al llegar a frontera. Europa y Estado Unidos son dos de las regiones menos aperturistas del planeta pero, sin embargo, son las que aportan un mayor número de turistas a las estadísticas mundiales[5]. Así, la sociedad mundial queda dividida entre los que pueden ser turistas y moverse libremente y los que son eternamente receptores de dichos turistas.

Otra de las dimensiones que hacen del turismo una actividad ganadora es su capacidad para manejar subjetividades, conductas, deseos y sueños. Como parte de la economía del ocio, el turismo es una de esas actividades que le permite, al capitalismo, controlar el tiempo completo de nuestras vidas. El tiempo libre se ha convertido en un tiempo para el consumo, un consumo de todo tipo de objetos, pero también de experiencias, de sensaciones, de vivencias que permitan diferenciarse del otro. Para ese control de las conductas y los deseos el turismo utiliza toda una batería de dispositivos que elaboran los significados y estereotipos de los destinos, previamente al viaje. Son la publicidad en medios diversos, las guías turísticas, las marcas territoriales, las postales, las cartografías, etc.

Pero para lograr todo esto, el turismo necesita producir su propio espacio, necesita relacionarse con los territorios para convertirlos en destino turístico. Y es aquí donde su impacto es ilimitado, puesto que no duda en fagocitarlo todo. El turismo habilita

1 Este dato se refiere siempre a llegadas de turistas internacionales
2 Fuente: Word Travel & Tourism Council (WTTC). Este dato suma los efectos directos, indirectos e inducidos del turismo
3 Fuente: UNWTO Tourism Hightlights ed.2018
4 Ibíd.
5 Fuente: Visa Openness Report, UNWTO, 2018




los lugares para la visita y el consumo, transformándolos no sólo físicamente sino también social, cultural y simbólicamente. Construye las infraestructuras y equipamientos que requiere y fomenta la urbanización rápida y masiva del espacio.  De hecho, ha sido capaz de construir ciudades ex profeso para la práctica turísticas, bien desde cero bien a partir de pequeños núcleos pequeros, haciendo tabla rasa del pasado de los territorios, de sus patrimonios construidos y simbólicos, de identidades y economías locales, de ecosistemas originales. Así, las primeras ciudades del turismo que aparecieron en nuestra costa mediterránea (también observables en otras latitudes) se caracterizaron por una ocupación masiva y desordenada del suelo, predominantemente para crear oferta alojativa, por el consumo ilimitado de los recursos naturales y por la degradación o destrucción total de paisajes y formas de vida tradicionales. Como resultado, la aparición de ciudades deficitarias, fragmentarias y duales social, espacial y temporalmente, una herencia que aún hoy conservan a pesar de continuos intentos de mejora mediante inversiones de dinero público.

Si en las ciudades nuevas el turismo segrega produciendo caras delanteras y traseras, en la ciudad consolidada y vieja también profundiza la dualidad centro-periferia, pues siempre concentra su actividad en los mejores lugares. Estos pueden ser la primera línea de costa o los cascos históricos. En ellos crea los escenarios que la práctica turística requiere, las plateas del teatro, donde el turista despliega sus imaginarios y concentra su entendimiento del lugar que visita. Se acumulan aquí las ofertas de ocio y restauración, comercial y alojativa, provocando con ello un incremento de la inequidad en las inversiones públicas dentro de la ciudad y que reclama el turismo para su buen funcionamiento. Cuando afecta a esa ciudad consolidada, aparece la pugna entre las vidas y los significados cotidianos de los residentes y los usos-placer de los visitantes.

Retomo en este punto, y para ir concluyendo, las preguntas enunciadas al inicio del texto. Si el turismo, en su modelo dominante, lleva aplicando las mismas estrategias para su despliegue, ¿por qué surge ahora ese malestar social, esas respuestas combativas y ese cambio en la percepción de la actividad turística? En mi opinión, lo primero que hay que apuntar es que, el turismo ha llegado de forma intensiva a los centros urbanos metropolitanos. Y es en ellos donde cobra fuerza el sujeto colectivo y donde se concentran las respuestas más creativas y críticas contrarias a las lógicas extractivistas y usurpadoras del capitalismo. Y, como ya se ha señalado, el turismo maneja a la perfección estas técnicas que incrementan la desigualdad, segregan y, como señala Rafael Borrás en un artículo reciente[6], empobrecen. Así mismo, sabemos que buena parte de los capitales acumulados durante los años de crisis están aterrizando en la ciudad a través del turismo para reinventarse, lo que está manchando su "buena reputación histórica". Pero el negocio sigue siendo el mismo que hace ya más de un siglo: la ciudad. Y la ciudad más lucrativa no es la ciudad donde viven los empobrecidos, sino la que pueden pagar los pudientes, también los que pueden ser turistas.

El fenómeno de las VUTs (Viviendas de Uso Turístico), en su formato actual y metropolitano, ha llegado para quedarse. Pero no para "democratizar" o para repartir mejor el amplio beneficio que genera la actividad turística. El sector lo tiene claro (el negocio no es para todas), y las administraciones públicas también, que se afanan por regular el fenómeno mientras siguen sin activar política públicas de vivienda reales y valientes, y modelos productivos bajo criterios sociales, solidarios y ecológicos.

Mientras el turismo sea un dispositivo de acumulación de capital, de apropiación de patrimonios comunes, un consumidor brutal de recursos naturales y un promotor de las desigualdades sociales, no será bueno. Las soluciones al modelo turístico no las podemos buscar dentro del mismo modelo productivo-inmobiliario que ha provocado el colapso en el que estamos.

6 En: https://shar.es/aaawtf

Uda iritsita, turistaz bete da Donostia aurten ere. Mugimendu etengabea sumatzen da Egiako autobus eta tren geltokien inguruan. Motxila handiak bizkarrean patxadaz dabiltzanak, gurpildun maletarekin karraka doazenak, hortxe bertan dagoen turismo bulego kanpoaldean euren txandaren zain ilaran daudenak... Tabakalera etengabeko joan-etorri horren lekuko izateko luxuzko talaia da. Izan ere, turismo eredua pil-pilean dagoen gaia da, sindikalgintzatik ezinbestean heldu beharrekoa. Eta turistak inguruan kuxkuxean genituela, gaiaz luze aritu gara LABeko Bizkaiko Merkataritza Sektoreko arduradun den Agurne Gaubekarekin eta Gipuzkoako Merkataritza eta Ostalaritzan dabilen Haizea Solagurenbeaskoarekin

# Sindikalgintzatik turismo-ereduaz mintzo

**Behin-behineko kontratuak, lanaldi amaigabeak, soldatak baxuak, behin-behinekotasuna... prekarietatea turismoaren egiturazko elementua?**
A: Turismoak toki bakoitzean izan dezakeen eragina aztertu behar dugu. Horren arabera eredu bat edo beste landu genezake. Zer pasatzen da gaur egun? Eredu bakarra dagoela eta hori prekarietatea dela. Gainera, ze turismo jaso nahiko genukeen birpentsatu beharko genuke. Baina turismoaren aldeko apustua egin nahi bada, kontratazio eredua, malgutasunaren ikuspegia etab. berrikusi egin beharko lirateke, baita negoziaketa kolektiboa eta hori dena erregulatzea lortzeko piztu beharreko borrokak ere.

H: Gainera **egungo ereduak turista jartzen du erdigunean eta, beraz, harentzat ahalik eta aukera eskaintza zabalena, ahalik eta erraztasun handienak**. Horrek zerbitzuak euren behar, antoju eta nahien arabera egokitzea eskatzen du eta langileek euren lan baldintzetan pairatzen dute. Egia da orain arte udan kontzentratu izan dela, baina joera hori urte osora luzatzen ari da. Kontratuan 20 ordu jarrita ere 40 betetzen dituzte, soldata bat daukate baina gero B-an beste zati bat kobratzen dute; azken hori beti da ordu gehiago egiteagatik edo lan karga gehiago hartzeagatik... Beraz, paperak aldatu behar dira: egun turista erdigunean baldin badago, haren ordez langilea egon behar da. Langileak egin behar dituen ordu kopurua, gutxieneko baldintzak adostu eta horiek jakinda, zerbitzu mota bat edo beste bat emango da, eta beharrezkoa baldin bada, kontratazioa areagotu.

A: "Turismo" hitza aipatzean zerbait masiboa datorkigu burura, Mediterraneoko turismoa kasu. Guk ez dugu eguraldi onik. Zer egin beharko genuke horrekin lehiatzeko, oso turismo merkea sustatu? Turismo merkearen **gakoa langileak merkeak izatea da** eta hori aldatu beharko genukeen elementu bat da. Hala ere, ez dugu prezioak puztea esan nahi: Donostian turismo elitistaren alde apustu egin da, baina soldatak ez dira igo.

H: Mito bat deseraikitzeaz ari gara: "turismoak dirua dakar, aberastasuna dakar". Aztertu beharko litzateke aberastasun hori zeini eta nola bideratuta dagoen. Soldata igoerak planteatzeko gero eta zailtasun gehiago daudela ikusten ari gara edo hainbat hitzarmen izoztuta egoteagatik langileek soldatak izoztuta eduki dituztela azken bost bat urteetan, ostalaritzan adibidez. Azpikontratazioaren bidez ere merkatzen dituzte langileak. **Turismo eredu honek poltsiko konkretu batzuetara dakar dirua**. Enpresa txikiak marka handien aurrean desagertzen doazen heinean, aberastasun hori kanpora doa.

A: Beste gako bat da hori: **zenbat diru publiko inbertitzen dugun turismoan eta trukean zenbat itzultzen zaien herritarrei** eta zenbat geratzen den poltsiko konkretu batzuetan. Guggenheim museoan gertatu zena adibide argia da: Guggenheim Fundaziora diru publikoa bideratu da, baina langileek hortik ez dute ezer jaso, 5 euro kobratzen zuten ordua. Langile formatuak, hezitzaileak, hainbat hizkuntza hitz egiten dituztenak... Nora joan da diru publiko hori? Fundaziora eta kontratatzen zituen ETTetara .

H: Jai egunetako irekierak honekin lotuta daude: turistari eguneko hogeita lau orduetan eta asteko zazpi egunetan zerbitzu guztiak eskuragarri jartzea da helburua. Euskal Herrian zorionez errotuta dagoen zerbait izan da jai egunetako deskantsu itxiera. Baina, azken urteetan, kultura hori eraisteko arrakalak sortzen ari dira. **Hainbat enpresa handi jai egunetako irekiera sustatzen ari dira**, urtean zehar egun zehatzetan irekiz edo ordutegiaren liberalizazioaren bidez. Mendebaldetik datozen kanpaina erraldoiak ere horren parte dira: *Black Friday*, *Shopping* gauean edo dena delakoa. Horrek zirkulazio bat ekartzen duela esaten da, inguruko dendei onura egiten diela horrek. Baina, azken batean, aldameneko komertzio txikiak zailtasunak izango ditu lehiatzeko: lokalek eduki dezaketen prezioa, ordu gehiago irekita egoteagatik sortzen diren erraztasun erreferentziak, produktu merkeagoak... Ez da berdina elementu hauei autonomo edo enpresa txiki bat izanda aurre egitea edo multinazional oso bat atzean edukita. Gainera, inkes-



**AGURNE GAUBEKA ERAUSKIN** (BERMEO, 1984)
Bizkaiko Merkataritza sektoreko arduraduna



**HAIZEA SOLAGURENBEASKOA ALKORTA** (DONOSTIA, 1989)
Gipuzkoako Merkataritza eta Ostalaritzako kidea

tek erakusten dute kontsumitzaileek ez dutela ordutegien zabalpenik eskatzen eta turistei bideratuta dagoela.

A: Deigarria da jai egunen inguruko legedian, 150 metro karratu baino gutxiagoko komertzioek EAEn bazutela nahi adina ordu eta egun irekitzeko eskubidea. Aldiz, estatu espainiarrak Olde Handiko Turismo Zonaldeen Legea ateratzen du eta honen bitartez 150 metro karratu baino gehiago dituzten komertzioei berdina baimentzen zaie. Beraz, benetan ari da sustatzen kanpotik datozenek bertako produktuak erostea? **Turismoa multinazionalei mugak ezabatu eta lan baldintzak malgutzeko aitzakia gisa erabili dute.**

H: Zentzu berean, auzoen identitate eta konposizioak erabat aldatzen dira. Donostiaren kasuan, kostaldean edo erdigunean dauden espazioetan kontsumorako edo aisialdirako eskaintza bat dago, baina merkataritza zentroak eta hotel handiak horrelako guneetan kokatzen dira. Horren eskutik dator prezioen garestitzea, alokairuen igoera... eta bertan bizi garen auzokide eta langileoi gerrikoa estutu edo periferiako auzoetara mugitzea besterik ez zaigu geratzen. Ondorioz, auzo horiek hustuz doaz.

A: Oraingoz hau hirietan gertatzen ari da. Baina zonalde turistikoen legediari begiratuz gero, zonalde turistikoak edozein udalerrik izendatu ahal izango ditu, monumentu historiko bat edo bidaiarien portua duen edozein herriri zaiolako legea aplikagarri. Beraz, Euskal Herriko hainbat txokora heda daiteke.

> "Turistari eguneko hogeita lau orduetan eta asteko zazpi egunetan zerbitzu guztiak eskuragarri jartzea da helburua"

> "Egun turista erdigunean baldin badago, haren ordez langilea egon behar da"

> "Donostian turismo elitistaren alde apustu egin da, baina soldatak ez dira igo"

**Azken urteetan gatazka desberdinak piztu dira turismoarekin lotutako sektore desberdinetan. Zeintzuk dira borrokatzeko zein negoziatzeko zailtasun eta indarguneak?**

A: Aintzat hartu beharreko lehen elementua sektore hauetan jarduten duten langileek borrokatzeko duten gaitasuna da. Oso lanaldi partzialak dira eta jendea sektore honetan beste aukerarik izan ez duelako edo beste sektoreren batetik kaleratu dutelako sartu da. Ze ekintza sindikal egin dezakegu edozein baldintza onartzeko prest dagoen norbait laguntzeko? Edonola ere, pizten hasi dira. Esaterako, lehen aipatutako Guggenheimeko kasuan. Hezitzaile eta gida turistikoen sektorean inoiz ez zen borrokarik aurrera eraman. Baina, hasi zirenean, ETT baten bidez kontratatuta zeudenez, kaleratu egin zituzten. Beraz, nondik jo dezakegun argitzea erronka handi bat izango da sektore hauekin.

H: Gipuzkoaren kasuan, hitzarmenaren negoziaketaren harira hotelen egoera loratu da. Gainera hedapen bidean dagoen merkatu bat izanda, bere garrantzia dauka. Orain arte Gipuzkoan hoteletako langileentzako hitzarmen propio bat egon da, baina azken urtee-



IPAR HEGOA FUNDAZIOA | CC BY SA

tan hainbat zerbitzu azpi-kontratatzeko joera antzeman dugu eta azpi-kontratatutako langile horiei ez zitzaien zertan Hitzarmena aplikatu. Hotel berean oso baldintza eta soldata desberdinekin lan berdina egiten zuten pertsonak zeuden. Horregatik, lehentasunezko borroka bat izan da, soldata eta hitzarmena hobetzeaz gain, azpikontratatutako langileei hitzarmen bera aplikatzeko konpromisoa lortzea. **Patronalak izugarrizko aurpegia eduki du**: sektoreak zailtasunak zituela esanez, komunikabideek turismo uholde bat dagoela etengabe diotenean eta datuek frogatzen dutenean gero eta jende gehiago datorrela. Beraz, ez dago arrazoi ekonomikorik, borondate eza eta diru gosea baizik.

Garrantzitsua da sektoreak dituen zailtasunez gain, borrokarako indarguneak identifikatzea: **turismoa oso agerikoa da, oso publikoa, ekimen puntualek min handia egin dezakete**. Izan ere, sektore turistikoak zein administrazioak irudiarekin asko jokatzen dute. Argazki horren erdian langile gatazka bat lehertzeak sekulako mina egiten du eta, beraz, inplikazioa ere handitu egiten da. Saltzen diguten guzti horren azpian dagoena aireratu behar dugu: kalea garbi badago, hoteletan zirkulazioa badago… langileek aurrera ateratzen dutelako da. Beraz, euren baldintzak erdigunean jarri behar dira.

**A:** Borroketan eta ekintza sindikalean sortzen den edozein eztabaidak Eusko Jaurlaritzarengan eraginen bat duela ikus dezakegu. Adibidez, Donostian egin dituzten azken adierazpenak gugandik hartutako ideia batekin izan dira: turismo jasangarria. Beste kontu bat da hori zelan egikaritzen duten, aurpegia zuritzeko bakarrik.

**Ze arrisku eta ondorio ditu batez ere turismoan oinarritzen den ekonomia ereduak?**

**A:** Inguru bakoitzaren ahulguneak eta indarguneak a ztertu behar ditugu argitzeko ea bertan turismoaren sektorean inbertitzeko aukerarik dagoen ala ez. Kontua da estatu espainiarra turismoa ezartzean tematuta dagoela. Alde batetik horrek Madrilen boterea metatzeko aukera ematen diolako, bai lan erregulazioan, bai enpresen eta ekonomiaren erregulazioan… Hemen beste eredu bat gauza daitekeen aztertu eta horretarantz jo beharko genuke. Trenak harrapatu gaitu, sinistu egin da turismoa dela krisitik aterako gaituen sektorea.

**H:** Turismoaz edo turismoak jokatzen duen paperaz hitz egiten dugunean garrantzizkoa iruditzen zait, eta bereziki burujabetza prozesu bat proposatzen duen ezkerreko mugimendu independentista baten ikuspegitik, Euskal Herri burujabe bat izateko zein behar ditugun eta nola garatu nahi ditugun. **Turismoak ezinbestean kanpoko dependentzia dakar: turistarik ezean, turismorik ez dago** eta zirkulazio hori ez dago gure esku. Beraz, soilik turismoarekiko apustu egiteak burujabetza galera ekar dezake. Egun indartzen ari den joera turismoa eta hirugarren sektorea indartzea bada, horrek oinarrizko baliabide eta produkzio sisteman, industrian bertan egin beharreko inbertsioa burujabetza sozial eta ekonomikoa eraikitzeko zein garrantzitsua den birplanteatzera garamatza. Horrek ez du esan nahi turismoari ateak itxi behar dizkiogunik, baina betiere Euskal Herriaren eta bertako herritarron beharrak erdian jarrita. Eta betiere jasangarria izan daitekeen turismoa, ez menpekoa.

**A:** Beste gako bat sektorearen profesionalizazioa da. Oinarrizko sektore bat izango baldin bada, sektore horretako langileei balioa eta kalitatea eman behar zaie. Horretarako alde batetik, lan baldintzetan inbertitu behar da, eta bestetik, hezkuntzaren papera berrikusi. Egun langile formatuak ditugu, baina haien ikasketa maila ez dator bat dituzten lan baldintzekin. Jende formatuak ez du turismoan lan egin nahi eta lanean dagoena, berriz, ez dago hain formatua. Esku hartu behar da hor.

**Lan merkatuan sektore zaurgarrienak direla ulertzen badugu, zelan eragiten die guzti honek emakume, gazte eta etorkinei?**

**H:** Turismo ereduak disponibilitatea, aldibaterakotasuna… eskatzen duen heinean, gazteak izan daitezke une jakin batean enplegu hori hartzeko prestutasuna izan dezaketenak, besterik ezean, udarako lan gisa zein ikasketak osatzeko. Hori prekarietatea mantentzeko edo okertzeko baliatzen da. Azken batean, lan eskubideekiko ezezagutza eta beharrizana batzen dira askotan, baita langile aldaketa handiak ere.

**A:** Sektore horietan dirua behar duten langileak daude, beraz ia edozer onartu behar dute. Adibide on bat haurrak zaindu behar dituztelako lanaldi murriztuan dauden emakumeena da. *Basque Fest* edo horrelako beste zerbait datorrenean, patronalak ordu gehiago sartzeagatik diru gehiago eskaintzen die eta euren lana gaizki ordainduta dagoenez, onartzen dute. Bost arratsalde egingo dituzte agian, baina horrek urte osoko lanaldian eragiten du: bost egunez euren

zaintza moldatu ahal izan badute, zergatik ez urte osoan zehar? Eta konturatu orduko, hasieran dirua amu gisa erabilita egindakoa, joera gisa normalizatzen da.

**Guzti honek herritarren bizitzengan eragin zuzena du. Ze inpaktu sozial ditu turismo eredu honek?**
**H:** Hasteko, Euskal Herrian aipatzekoa da turismo eredu honek duen inpaktu linguistikoa. Azken batean, zerbitzua atzerritik datozen pertsonentzat diseinatzen da eta hauek errusieraz, txineraz, gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez... hitz egiten dute. Baina euskaraz ez. Ondorioz, kaleko seinalizazioa, publizitatea, propaganda, komertzioetako promozioak ez daude euskaraz. Langileen artean ere euskaraz jakitea eta gure hizkuntza sustatzeko konpromisoak are eta mugatuagoak dira. Donostian denda batzuetan kontsumitzaile gehienak frantsesak direnez, langileei oinarrizko frantses klase batzuk ematera iritsi dira, hurbiltasuna transmititzeko. **Gure identitate kulturala bigarren plano batean utzi edo desagerrarazi egiten da, beste hizkuntza eta erreferentzia kultural batzuk barneratzeko**. Horrek dakartzan ondorioekin: orain arte zure auzoko dendan euskaraz aritzeko zailtasunak bazenituen, orain agian informazio gehiago jasoko duzu beste edozein hizkuntzan zurean baino. Euskararen mugapena turismoaren eraginez aztertzeko fenomeno bat da.

**A:** Hitz egin ez dugun beste elementu bat turismoak ingurugiroan eragin ditzakeen mehatxuak dira. Gaztelugatxen gertatutakoa oso argigarria da: serie baten harira modan jarri eta jende andana doa tokia ez dagoenean prest. Horri lotuta, EAJk oraindik ere poltsikoan gordetako dauka Urdaibain bigarren Guggenheim bat eraikitzeko proiektua, non eta gune natural batean. Museoa, hotela, aparkalekua... ingurumen legedia ororen gainetik.

**H:** Turismoak dakarren jende zirkulazioa biderkatzen doan heinean, sortzen den kutsadura eta zaborra handiagoa



IPAR HEGOA FUNDAZIOA | CC BY SA

“Inkestek erakusten dute kontsumitzaileek ez dutela ordutegien zabalpenik eskatzen”

“Turismoa oso agerikoa da, oso publikoa, ekimen puntualek min handia egin dezakete”

“Agerian utzi behar da saltzen duten guztiaren azpian zer den benetan ezkutatzen dena”

da, lurraldearen higadura ere handiagoa da, beraz eraikuntza lan gehiago... Horrez gain, bereziki horretara bideratutako proiektuak dauzkagu, zeinetan mendiak txikitu behar ditugun edo hondartzen azpian zulokoteak egin alferrikako metroak eraikitzeko, etab.

**Turismo masiboa fenomeno transbertsala den heinean jarduera eta eremu desberdinetan eragiten duela aintzat hartuta, zein izan behar da sindikalgintzaren papera bere aurrean?**
**A:** Nire ustez sindikalgintzak paper garrantzitsu bat eduki behar du instituzioak baldintzatzeko orduan: erregulazio desberdinen inguruan, hitzarmenen inguruan, bereziki diru publikoa jasotzen duten espazioen inguruan... Adibidez, museoetan diru publikoa jasotzen duten heinean, instituzioak bertako erregulazioan sartu beharko lirateke. Erregulazio hori herritar eta langileei begira, eta ez soilik turistei begira, izan dadin presio egin behar dugu guk.

**H:** Interpelazioa enpresa edo patronaletara ere zuzendu behar da. Aurpegia zuritzeko kanpaina asko egiten dituzte, alderdi politikoekin batera askotan, beraz, agerian utzi behar da saltzen duten guztiaren azpian zer den benetan ezkutatzen dena. Eraiki diren hainbat argudiaketa eta uste deseraiki behar dira, turismoak dirua badakar nora doan eta zeinen kontura argitu. Sindikalgintzak horretan paper bat dauka.

* Elkarrizketa osoa *www.iparhegoa.eus* webgunean eskuragarri.

# Turismo neoliberala munduan zehar

**1.235 MILIOI** NAZIOARTEKO TURISTA IRITSIERA 2016EAN
Iturria: OMT

munduko esportazioen **%7**
**1,4 bilioi $**
Iturria: WTTC

BPGren **%10**
zuzena, zeharkakoa, induzitua
Iturria: OMT

LANPOSTUAK **10etik 1**
Iturria: WTTC

**1.800 MILIOI** NAZIOARTEKO TURISTA IRITSIERA 2030ERAKO
Iturria: OMT

**Turismoa 2030ean: joerak eta proiekzioak 1950-2030**




**Turista iritsiera bisita arrazoiarengatik, 2016* (kuota)**




**Turista iritsiera garraio motaren arabera, 2016* (kuota)**




Atmosferara igorritako negutegi efektuko gasen **%10** turismoari lotutako jarduerek eragiten dute
Iturria: ???

## Lurraldeen eta pertsonen arteko desoreketan sakontzen du

- Turismoa erdigune globalaren baitan edo erdigunetik periferiara mugitzen da: fenomeno masiboa bada ere, munduko biztanleriaren zati txiki batek barrik du aisialdi arrazoiengatik bidaiatzeko aukera.
- Beharrizan politiko edo ekonomikoen ondorioz ematen diren fluxuei, ordea, mugak ixten zaizkie.
- Erdigunean klase gatazka eta eztabaida desitxuratzen ditu: "denok gara turistak" diskurtsoa.

## Homogeneizazioa

- Herri-identitateak desagerrarazi edo kontsumo objektu bereizgarri gisa esplotatzen ditu.
- Hirigintza homogeneizatu egiten du, antzeko azpiegituren sorrera bultzatuz eta multinazionalek bertako komertzio txikia ordezkatzen dute.

## Kanporaketa prozesua dakar

- Turismo helmuga diren tokietan abiatzen diren prozesu urbanistiko zein ekonomikoek biztanleak gune horretatik kanporatzen dituzte.
- Gune horiek kostalde zein hirien erdigunean kokatu ohi dira. Zerbitzuak bertan kokatzen dira, prezioak garestitu, ingurua elitizatu, espekulazioa hedatu...
- Espazio publikoa turismora bideratu edo pribatizatu egiten da (espazio publikoak ez du plusbaliorik sortzen).

## Globalizazioak ahalbidetzen du

## Erauzketa industria bat da

- Zerbitzuen sektoreek garatu arren, "erauzketa industria" (M. Garcés) bat da. Jarduera garatzen den tokiko natur baliabideetaz jabetu eta, jatorrizko herritarren beharrak aintzat hartu gabe, agortu arte erauzten ditu, ekosistemak eta pasaiak suntsituz. Jatorrizko metaketarekin parekatuz, David Harveyk "jabetze bidezko desjabetzea" deitzen du prozesu hori.
- Espezializazioaren ondorioz, "monolaborantza" antzeko bat da.
- "Hazkunde motor" omen denez, herrialdeek enpresa hauen mesedetan arautzen zein desarautzen dute ekonomia, ingurumena eta lan legedia.

## Denbora eta desioak esplotatzen ditu

- Kapitalismoak lanaldiaz gain, aisia arautu eta salgai bihurtzen du.
- Turismoaren bidez, kapitalismoak kontsumo materiala eta ez-materiala eskaintzen ditu. Gure subjektibitateak, desioak, ametsak, ezagutzeko eta esperimentatzeko nahiak merkatu-hobi gisa esplotatzen ditu.
- Horrez gain, gure desirak bere beharren arabera birsortzen ditu. Kontrolatu egiten ditu.
- Kontsumismoa bultzatzeko, bidaiaren prozesuak balioa galtzen du kopuruaren, helmugaren prestigioaren, distantziaren... aurrean. Metatutako bidaiek estatus soziala ematen dute.

## Eskulanaren eta natur baliabideen esplotazioa

- Errentagarria izateko, enplegu prekarioa sortzen du: gaizki ordaindua, behin-behinekoa, aparteko orduak... turismoaren prezio merkeak langileen kontura lortzen dira.
- Sektore turistikoetan lan baldintzetan emandako atzerakadak inguruko sektoreetara ere zabaltzen dira: merkataritzara, aisialdi eskaintzara...
- Emakumeak eta gazteak aritzen dira sektore hauetan lanean.

## Neoliberalismoaren tresna perfektua da

## Hazkunde mugagabearen adierazgarria

- Etengabe espazio eta helmuga berriak sortzen ditu. Ez turista kopurua hazi delako, kapitalak hazteko, mugitzeko eta metatzeko duen beharraren ondorio baizik.
- Turismoa "hazkunde motor" gisa aurkezten da: ekonomia berpiztu, enplegua sortu... Herrialde txirotu askotan garapenerako bide bihurtzen da.
- Merkatua zabala eskaintzen ditu: "Ezohikoa, apartekoa, originala, sortzailea balioan jarri eta muga batera arte garatzen uzten du: harengandik soberakin bat ateratzea ahalbidetzen dion mugara arte" (China C. Cabrerizo). Hala ere, homogeneizazioa dago aniztasun faltsu eta neurtu horren atzean.

## Ingurunea eraldatzen du

- Turismoak ingurunean eragiten duen inpaktua oso bortitza da.
- Jarduera turistikora esklusibotasunez bideratutako espazio, herri eta hiriak sortzen edo eraldatzen ditu.
- Tokiko eta tradiziozko ekonomia ordezkatzen du: zerbitzuen sektorea gailentzen du, "tertziarizazioa".
- Turistifikazioak edozein toki bihur dezake turismo hartzaile.

## Boterea eta kapitala esku gutxitan metatzea

- Munduko 20 enpresa hotelero nagusiek merkatuaren %32 kontrolatzen dute.
- Transnazional hauek sektoreko cluster handiak sortu dituzte eta negozioaren arloak bateratu dituzte: ostalaritza, bidaia agentziak, hegazkin konpainiak, kasinoak, aseguruak, inmobiliariak... Bi errenta jasotzen dituzte: espekulazioaren eta turisten erabileraren ondorioz.
- Turismoan espezializatzeak enpresa hauekiko menpekotasun handia sortzen du: haiek erabakitzen dute turismoa nora doan.

talaia gogoetarako gunea

iparhegoa IKASKETA SINDIKALETARAKO FUNDAZIOA




# Crítica a la turistificación de nuestros barrios desde una perspectiva feminista

El turismo, como todo fenómeno social, no es algo neutro, sino que se rige por los principios de un sistema capitalista, patriarcal y colonialista. Estos determinantes configuran quién hace turismo, cómo y dónde se hace y qué impactos tiene la turistificación sobre los territorios.

Cuando nos preguntamos quién puede hacer turismo es obvio que no todo el mundo tiene las mismas oportunidades. Por una parte, vivimos en un mundo globalizado de libre circulación de capitales y mercancías, en el que coexisten un sistema colonialista de fronteras que controla, obstaculiza y penaliza el movimiento de una parte de población del mundo, mientras que una pequeña parte privilegiada, podemos transitar sin casi ningún problema por casi cualquier país del mundo y además se nos anima a hacerlo a través de la publicidad, la prensa y la ficción. No es casualidad que de las personas que visitaron el Estado Español durante 2017, solamente un 5,88% eran procedentes de países de África y Asia[1].

También existe una clara exclusión desde el punto de vista de la clase social, ya que, a pesar de la expansión del turismo de masas, son las clases privilegiadas quienes más posibilidades tienen de viajar por la capacidad de desembolso. Según datos del INE del 2015 en el Estado Español un 40,6% de personas no pueden permitirse irse de vacaciones al menos una semana al año[2].

**BLANCA VALDIVIA GUTIERREZ** (1981) es socióloga urbana por la Universidad Complutense de Madrid y Máster en Gestión y Valoración Urbana en la Escuela de Arquitectura Superior de Barcelona, donde está acabando el doctorado.

**SARA ORTIZ ESCALANTE** (1978) es socióloga por la Universidad Autónoma de Barcelona y tiene un máster en planificación urbana en la University of Illinois at Urbana-Champaig. Está acabando su doctorado en la Universidad de British Columbia.

Ambas son socias de Col·lectiu Punt 6, cooperativa de urbanistas que trabajan por repensar espacios domésticos, comunitarios y públicos desde una perspectiva feminista e interseccional.

Por último, **en quién viaja también hay un sesgo de género**. Cuestiones como la falta de tiempo disponible, las responsabilidades familiares vinculadas con los cuidados (el 80% de las personas cuidadoras de personas enfermas o mayores son mujeres[3]) o la feminización de la pobreza (mayor porcentaje de desempleadas, salarios más bajos, menos pensiones y con ingresos más bajos….)[4] inciden directamente en la posibilidad de viajar para las mujeres. Otro aspecto que hay que tener en cuenta desde la perspectiva de género, es la percepción de seguridad que condiciona la libertad de movimiento de las mujeres en su vida cotidiana[5] y que puede también influir en la decisión de una mujer de viajar. **Esta percepción subjetiva de inseguridad aumenta con todo un mecanismo social de control hacia el cuerpo de las mujeres**. Recordemos, por ejemplo, el juicio mediático al que sometieron a las dos jóvenes argentinas asesinadas en Ecuador mientras via-

jaban de mochileras, en el que gran parte de la prensa se preguntaba por qué estas dos chicas viajaban solas, en una perversa y machista estrategia de culpabilización a las propias víctimas.

El cómo y el dónde se hace turismo y los impactos que tiene la turistificación sobre los territorios también pueden abordarse desde una perspectiva feminista. **El urbanismo feminista plantea repensar la ciudad desde la vida cotidiana, evidenciando la diversidad de experiencias y necesidades** y poniendo la sostenibilidad de la vida en el centro. El modelo de ciudad hecho para sustentar los engranajes del mercado turístico, rompe la vida cotidiana de los barrios y no tiene en cuenta los cuidados. La turistificación homogeneiza los espacios urbanos que pasan por la tabula rasa del interés económico, en la que la ciudad se convierte en un producto de consumo más.

La ciudad turistificada está en continua transformación para adaptarse a las demandas del mercado. Estos cambios se concretan en la desaparición del comercio de proximidad, el aumento del precio de los bienes de consumo en los barrios más turistificados, la expansión de los pisos turísticos que conllevan un incremento exponencial de los precios de la vivienda y la expulsión de las vecinas, la masificación del transporte público cuando hay eventos privados que atraen a muchas personas (festivales de música, mobile congress, competiciones deportivas…), la ocupación de la calle de grupos numerosos que dificultan el tránsito de otras personas, la percepción de inseguridad que provocan los grupos de ciclistas, la privatización del espacio público de motos o bicis de alquiler para turistas, la pérdida de espacios que no sean de consumo para el desarrollo de la vida comunitaria, la proliferación de zonas monofuncionales de ocio nocturno y de calles anónimas….

Como cooperativa feminista ubicada en el centro histórico de Barcelona, en los últimos diez años hemos presenciado el monocultivo turístico, con una homogeneización del comercio que se va transformando en tiendas de souvenires, minúsculos establecimientos con comida para llevar, heladerías, pizzerías, o tiendas con productos que puedan parecerle sugerente a una población que está de paso y que puede pagarlo. La ley del mercado al servicio del turismo, mata al comercio de proximidad. Pero este comercio, como ya señalaba Jane Jacobs[6] cumple un papel fundamental en la vida de nuestras ciudades, hace que las calles estén más vivas, mejora la percepción de seguridad y permite establecer vínculos con las personas vecinas, desde ser el sitio de referencia para dejar las llaves, hasta hacer de antena y cuidar que las personas mayores que viven solas en el barrio están bien[7].

En muchas zonas de Barcelona, y sobre todo en la trama urbana del centro histórico, la movilidad peatonal se convierte en una yincana cotidiana para las personas que se desplazan a pie, mayoritariamente mujeres (Barcelona, 53,7%[8]) con aceras ocupadas por



1 Estadística de Movimientos Turísticos en Fronteras (FRONTUR) noviembre 2017. Instituto Nacional de Estadística
2 https://www.elmundo.es/sociedad/2016/05/24/57441c57ca4741426c8b45e2.html
3 Instituto Nacional de Estadística
4 https://www.publico.es/sociedad/feminizacion-pobreza-principal-causa-pobreza-mujer.html
5 Sara Ortiz "Nocturnas. La vida cotidiana de las mujeres que trabajan de noche en el Área Metropolitana de Barcelona" http://www.punt6.org/guias-propias-de-col%C2%B7lectiu-punt-6/
6 Jane Jacobs "Muerte y vida de las grandes ciudades"
7 Proyecto Radars del Ayuntamiento de Barcelona
8 Enquesta de mobilitat en diez feineres 2013 (EMEF)

la proliferación de artefactos (segways, patinetes, trixis…), grupos grandes de turistas, pelotones de ciclistas inexpertxs y motos y bicicletas de alquiler aparcadas invadiendo la calle. Ante esta vorágine cotidiana, **se acaba imponiendo la ley del más fuerte**, y personas mayores, personas cuidadoras, enfermas, niños y niñas, personas que van con carritos de bebé…acaban limitando sus desplazamientos por la ciudad o eligiendo recorridos más largos para evitar zonas de aglomeraciones turísticas.

El aumento de pisos turísticos ha desencadenado un efecto de bola de nieve, que ha derivado en expulsión de personas vecinas de los barrios con mayor interés turístico (en el caso de Barcelona, los pisos turísticos se han extendido por toda la ciudad), un aumento de la demanda de viviendas de alquiler y una menor oferta de pisos, y el precio de las viviendas se ha disparado en toda la ciudad, llegando a extenderse a la primera corona metropolitana. El **incremento del precio de la vivienda** afecta también en mayor medida a las mujeres que tienen ingresos más bajos.

A ella se le suma, la aparición de zonas de ocio nocturno monofuncionales que mayoritariamente sirven al turismo, como el caso del Port Olímpic y que impactan en la vida de barrios colindantes como la Barceloneta, pero que a su vez representan un gasto público de limpieza viaria para ordenar los destrozos que provoca un ocio que normativiza el consumo de alcohol y drogas y sus consecuencias. Además, es un **ocio claramente heteronormativo y que exacerba la objetivación y la sexualización del cuerpo de las mujeres**. Muchas veces este tipo de ocio también está vinculado al turismo sexual, siendo Barcelona uno de los principales destinos sexuales, y por lo tanto, también reproduciendo una cultura de ocio patriarcal.

9 https://laskellys.wordpress.com/quienes-somos/

“La percepción de seguridad que condiciona la libertad de movimiento de las mujeres en su vida cotidiana y puede también influir en la decisión de una mujer de viajar”

“El urbanismo feminista plantea repensar la ciudad desde la vida cotidiana, evidenciando la diversidad de experiencias y necesidades”

“La movilidad peatonal se convierte en una yincana cotidiana para las personas que se desplazan a pie, mayoritariamente mujeres”

“Se acaba imponiendo la ley del más fuerte, y personas mayores, personas cuidadoras, enfermas, niños y niñas, personas que van con carritos de bebé... acaban limitando sus desplazamientos por la ciudad”

El objetivo de este artículo no es caer en la retórica de que cualquier tiempo pasado fue mejor y que la turistificación de nuestras ciudades es la culpa de todos nuestros males. Hay muchas cosas que estaban mal en nuestras ciudades antes, pero es imposible mejorar nuestra vida en la ciudad si los cambios vienen impuestos desde el mercado.

Sin embargo, creemos que todavía pueden desarrollarse estrategias para frenar la deriva de la turistificación. Más que medidas restrictivas que pueden elitizar aún más los viajes turísticos, consideramos que **se tienen que promover medidas que garanticen el desarrollo de la vida cotidiana en los barrios**. Desde las políticas públicas estableciendo un porcentaje mínimo de viviendas vecinales por edificio, manzana y barrio, limitando el precio de alquiler de viviendas y locales, elaborando planes de uso que fomente el comercio de proximidad, las cooperativas de trabajo y consumo, limitando el número de terrazas y locales de ocio nocturno. Desde los movimientos sociales creando redes de apoyo mutuo para evitar la expulsión de las personas vecinas (como muchos grupos de vivienda de barrios que llevan años trabajando), visibilizando los conflictos y abusos por parte del sector turístico, ocupando y reapropiándose de espacios públicos privatizados….

El urbanismo feminista no responde a los intereses del mercado, que son contrarios a la sostenibilidad de la vida y reivindica una ciudad en la que diversidad de necesidades puedan ser satisfechas. A partir de una mirada ecofeminista, también **debemos cuestionarnos cómo podemos cambiar las maneras de hacer turismo en las ciudades** y reflexionar sobre qué consecuencias tiene este privilegio que disfrutamos algunas en la pérdida de la vida cotidiana, la gentrificación, la explotación laboral (principalmente a mujeres[1]) y el incremento de la exclusión en la mayoría de ciudades turísticas del mundo.



# Turismoaren ertzetatik hiri ereduaz hausnartzen

**Maddi Arrieta Laka**
LABeko ekintza sozialeko kidea

**IPAR HEGOA FUNDAZIOA** | CC BY SA

Aspaldi kezkatu gara Bilboz, Donostiaz, Lapurdiko kostaldeaz. Izen berriak gehitzen doaz zerrendara: Iruña, Zarautz, Pasai Donibane, Urdaibai, Mundaka, Getxo... eta zergatik ez, Gaztelugatxe fenomenoa. Gaur egun, hiriburuek eta kostaldeak jasotzen dute bisitari gehien, baina badira itsasertzetik urrundu eta turista naturan barrena murgiltzea bilatzen duten turismo autoktono kanpaina berritzaileak, "Euskadi, Basque Country" bezalakoak ("gentrifikazioa arindu eta turismoaren sektoretik sortutako aberastasuna banatu asmoz", noski). Zer gertatzen ari da? Nora iristeko gai gara honela jarraituz gero? Gure gizartea eraldatzen duten turistifikazio prozesuak bizitzen eta elikatzen ari garen honetan, **sindikalgintzatik ereduok erradiografia erradikala merezi dutela uste dugu.**

Bilbok hilabete bakarrean batu ditu nazioarteko oihartzun handiko hiru ekitaldi, eta zeresanik ez, datozen MTV sari famatuak. Artean, udal eta foru aldundiek ez dute dirurik astero iristen ari diren ehunka migranteei bizitza bermatzeko, diruari mugak zabaltzen zaizkion honetan pertsonari harresi fisiko-ideologikoak eraikitzen dizkiogularik. Gastronomia, kultura eta artearen potentzialtasuna garatzen aitzindari, nazioartean dirudunen artean bere burua saltzeko faktoria da Guggenheim patriarka. Hala ere, **ez da gai haren atarian den Pupiri eskaintzen zaion lore-zaintza, egonkortasuna eta segurtasun berbera, titaniozko jauregiko langile prekarioari ziurtatzeko**.

Donostiak nahiago du maila altudun turistaren perfila, bizpahiru egun igarotzeko familian datozenak, pintxoa eta paseoa, izozkia eta badia, Nazio Batuen Turismoaren Mundu Erakundeak batailatu berri duen herrian. Handien artean lehiatzeko aukera paregabea izateko, sakrifizio txikiak eskatu dizkio udalak herritarrari: Metroa itsasazpitik, Txillidalekuren oinordeko dirudien Tabakalerako espazio hutsaren interpretazio-gunea, mendeetako arrantza-ontziari omenaldia egiten dion yateen kirol portua... eta horrez gain, urtean milioi eta erdi turistak sortzen duten zabor kantitateari irtenbide zirkularra: krematorioa, bada ezpada, Zubietan.

**MADDI ARRIETA LAKA** (Donostia, 1993). Psikologia ikasketak egin ditu. Egun, LAB sindikatuko Donostiako Ekintza Sozialeko arduraduna da eta ardurak horrek turismoaren gaian buru-belarri murgiltzera eraman du. Besteak beste, "Bizitza da handiena" ekimenean aritu zen joan den ikasturtean.

Lapurdiko kostaldea, Ipar Euskal Herriko gune turistikoena, begi askoren jomugan da, batik bat, eguzki eta lasaitasun bila dabilen turista frantsesarena. Biarritz, Napoleonek deskubritutako Amerika, egun europar aristokraziaren paradisu da, kolonizazioaren forma berriez mintza gaitezkeelarik hemen. Baionako bestek aitortzen dute errealitate gordinena, kanpotarrari sarrera ordainaraziz martxan jartzen den ekonomia ereduak festazalea kontsumitzaile soil bilakatzeaz gain, zubiez barrualdean **"hemen denak balio du"** espazioa eskaintzen dio. Honek ezinbestean gogoarazten digu Iruñeaz, eta

mundu mailako ekitaldi diren San Fermin masifikatuez, eta herriak gaitzetsi dituen eta zigorgabe dirautenez.

Turismoak, lurraldeak, gorputzak eta iruditegia kolonizatzeko ezarri den sektore "aurrerakoiak", adreiluak utzitako zuloa estaltzea helburu duen aurrerabide "(sozio)ekonomikoa" markatzen du. Hiriburuetan bilakatzen da ikusgarrien hau: gastu (publiko) erraldoiek diruztatutako proiektu (txikitzaile) handi-mandiez atzerriko inbertsioa eta turista diruduna erakartzea bilatzen da, eta **beraz, kanpotar zein ordain dezakeenarentzat emaitzarik erosoena ziurtatuko da lehenbizi,** ondoren, proiektuaren gauzatzaileari zein klase altuko bezeroari etekina ziurtatzean soberakin urriekin konformatu beharko delarik herritarra (AHT-a, Donostiako metroaren pasantea...).

Isilpean negoziatzen ari diren Merkataritza Askeko Tratatuen bidez, munduko herrialdeek merkatuari mugak eraitsiko dizkiote eta Euskal Herriko herriek, Europaren mailan jartzeko beharra sentituta, multinazionalei harrera eskuzabalik egiten dieten horien pare: azalera handiko zentro komertzialen irekiera eta hedapenen *boom*-ak (Gipuzkoan dagoelarik mehatxurik handiena), edota herri barruan kokatzeko marka handiei ematen zaizkien erraztasunak, bertakoen bizimailaren eta demandaren gaindi dagoen ekoizpen eta kontsumo eredua islatzen du (frantsesarentzat egindako Europako Zararik handienaz harro dago Donostia).

Zeresanik ez, turista masarentzako harrera, mugimendu eta egonaldia bermatzeko eraikitzen eta irekitzen ari diren azpiegiturez. Donostian 2019rako 20 hotel gehiagoren irekiera baimendu da, ostalarien elkarteko lehendakariak zin egin zuenari jarraiki: demandarik ez badago ere, sortuko dugu. Pribatizazio masiboen garaia da, bereziki hiriburuetako alde zaharrentzako: ostalaritzak bereganatu ditu kaleak eta plazak. Lehen baloiarekin jolasten ikusten genituenean haurrak,



IPAR HEGOA FUNDAZIOA | CC BY SA

"Gastu (publiko) erraldoiek diruztatutako proiektu (txikitzaile) handi-mandiez atzerriko inbertsioa eta turista diruduna erakartzea bilatzen da"

"Pribatizazio masiboen garaia da, bereziki hiriburuetako alde zaharrentzako"

"Turismoaren industriak ere ederki jakin du kokatzen bere burua, turismoa bera kontsumo-objektu bilakatuz"

orain bertakoentzako pentsatuta ez dauden terrazez beteak.

Turismoaren industriak auzoko komertzio txikiari, lanaldi egonkorrari... egiten dion kaltea ez da edonolakoa. Edonolako ez den bezalaxe komertzio hauen itxierak auzoa bizitzaz eta eskaintzaz hustea dakarrenean. Izan ere, **herriko denda eta taberna txikiek ematen diote aniztasuna eskaintzari, orain ordea, Amancio Ortegaren eskaintza besterik ez dugu begi bistan**. Herritarrok kontsumitzen duguna homogeneizatuz eta unibertsalizatuz, autentizitatea eta bertakotasuna erabat galtzen ari gara. Hau esatean, munduko herrien eta kulturen homogeneizazio prozesuaz ari gara.

Auzo eta herriak desertifikatzen ari direla ikusten dugu, hiriburuetako herritarrak periferiara kanporatu beharrean daudelarik turistari lekua egiteko. Honek bizilagun asko aktibatu ditu: lurraren zein ur eta elikagaien demanda igoerak oinarrizko baliabideen garestitzea eragin du, gizartearen sektore zaurgarrien gain eroriz pisua berriro. Egun gazte, prekario, emakume, langabetu diren sektore pobreenek euren eguneroko ogia bideratzen dute bizitzaren garestitzea ordaintzera. Izan ere, globalizazioaren industria arrakastatsuenak, hemen eta Indonesian, enplegua sortzen du, bai, gizarte klaseen arteko arrakala betikotzeko lan harreman eredua erreproduzitzen duen enplegua sortzen du, bizitzaren garestitzea ordaindu ahal izateko beste ematen ez duen enplegua: lanaldi tenporal eta prekarioak dira, kualifikazio baxukoak, beltzean, langilearen eskubiderik oinarrizkoenen urraketa etengabean, antolatu eta sindikalizatzeko eskubiderik aitortzen ez duena. Langileak horrekin gutxi ez balu, herritar berbera da erdiguneko pisuen salneurri edo alokairu igoera neurrigabea ordaintzera ezin iritsi eta miraraik egiten ari dena euren herrian bizitzen jarraitu ahal izateko zein inposatzen ari den bizi-estilo (kontsumo eredua) eta erritmoa jarraitzeko.

Azken honi eutsiko diot, ez baita huskeria politika neoliberalak turismoan egin duen hautuak geure bizimoduetan konturatu barik izaten ari den eragina. Kontsumo ereduaz ari naiz, zer kontsumitzen ari garen konturatu barik bizi garen ereduaz, hau da, non ipintzen dugun balioa (eta non ez). Gaur egungoa abiadura handiko bizimodua da: hogeita lau orduko estresa, leku guztietan egon nahi eta azkenean inon ez... Bizimodu honetan **turismoaren industriak ere ederki jakin du kokatzen bere burua, turismoa bera kontsumo-objektu bilakatuz, honela, plazeraren zentzua bera ere merkaturatzeraino:** balioan ipintzen dugu joan izana, non egon garen, noraino joan garen, zenbat kostatu zaigun... eta beraz, zer ordaintzeko gai izan garen, guzti hau *Selfi*-aren bidez frogatua geratzen delarik. Bisitatzen den herriko kultura, folklore eta ingurumen-ondarean murgiltzeko sentsazioa salgai jartzen da, ez lehendabizi herriaren ondare erreal hori zapaldu barik, herriaren identitatea ustiatuz, eta honela turista kapitalak antolatutako espektakuluaren bezero esklusibo bilakatzen da. Finean, turismoa klase ertain kontsumitzaileen pribilegio sozioekonomikoa da (munduaren hiru laurden kanpo geratzen dira).

Harago joan gaitezke turismoaren inpaktu sozialaz mintzatzean, bertako biztanleria eta turistaren arteko harreman desorekatuak sustatzen direla esatean, batak bestearengan duen menpekotasunez, alegia. Turismo eredu honek ez du herri autoktono eta bisitariak izan beharko luketen berdinen arteko truke baten alde egiten. Herrien garapen ekonomikoaren altxor gisa turismoa kokatzen duten bitartean, azpian monolabore engainagarria kozinatzen ari baitira. Hau da, **herritarron onuraren aitzakia faltsupean, atzerriko kapitalari ateak irekiz irabaziak gutxi batzuen poltsikoetara bideratu eta galerak sozializatzen dira**.

Honenbestez, azken urteetan turismoaren hazkunde neurrigabeak KEZKA



**IPAR HEGOA FUNDAZIOA** | CC BY SA

“Turistifikazioaren ondorioek gizarte sektore ezberdinak jotzen eta josten ditu”

“Planteamendu berritzaile hauek borroka konkretuen plaza edo elkargune izatea bilatzen dute, kapitalaren ofentsiba honi aurre egiteko subjektu berri baten forman”

eragin du jendartean. Turistifikazioaren eraginak esparru askotaraino zabaltzearen ondoriozko egoeraren larriak, batzera eta antolatzera eraman ditu bizilagunak, hiri ereduaren inguruko eztabaida mahaigaineratuz, bizitza bere osotasunean baldintzatzen duen garapen eredua zalantzan jarriz.

Turismoaren aurrean poliki baina etengabe artikulatzen ari den mugimenduak aniztasun handia eta jendarte zabalaren gehiengoa erakusten du jada. Turistifikazioaren ondorioek gizarte sektore ezberdinak jotzen eta josten ditu, potentzialtasun handidun mugimendu zabala osa daitekeelarik bertotik, aldarri orokor baten pean bateratzeko aukera baliatzen jakiten badugu. Honela ikusi ditugu iniziatiba txiki eta lokalak jaiotzen: Bilbon, auzo elkarteak, askotako eragileek, sindikatu eta alderdi politikoek antolatutako #EHTourist jardunaldiak burutu ziren; Donostian, turismoaren gaia landuz hiri ereduaren inguruan kezkatuta dauden herritarrak antolatu egin ziren auzia jendarteratzeko (BiziLagunEkin). Planteamendu berritzaile hauek borroka konkretuen plaza edo elkargune izatea bilatzen dute, kapitalaren ofentsiba honi aurre egiteko subjektu berri baten forman. Aniztasunak kudeatzen elkarrekin aurrera egin dezakeen subjektu bateratzailea, antikapitalista, feminista eta sozialista. *Turismoaren gordinkeriaren aurrean, bizitza erdigunean jarriko duen gizarte eta garapen eredua aldarrikatuko duena*. Bizitza Da Handienak bildu zituen borroka sozialen astean turismoaren aita den erakundearen aurka egiteko hamaika eragile, borroka, su txiki anitz (auzo elkarteak, hotel+ez, hiri ereduarekin kezkatutako bizilagunak, gazteak, feministak, pentsionistak, proiektu txikitzaileen aurkako eragileak, mugimendu ekologista, animalistak, autogestioaren aldeko mugimendua, sindikatuak, arrazakeriaren aurkako eragileak...) eta denak batera murgildu ziren borroka bakarrean, orokor pentsatuz, txikitik eraginez.

# “Herritarrentzako onuragarria den turismoak, lehenik eta behin, herritarren parte hartzea behar du”

**Azaldu labur-labur zer den eta zer egiten duzuen Bizibizikin.**
Bizibiziki natura-turismoa eta iraunkortasunean espezializatutako lan talde txikia da. Iraunkortasunaren ikuspegi zehatzarekin eta tokiko garapenean eragiteko lan egiten dugu. Diziplina ezberdinetako lantaldea gara eta horrek gure ikuspegi eta proiektuetan eragin zuzena du.

Egiten dugunari dagokionez, aholkularitza, eskaintza turistikoaren diseinua eta proiektu ezberdinen kudeaketan parte hartzen dugu.

**Azken urteetan uda hurbildu ahala turismo ereduaren inguruko eztabaida berrirekitzen da. Gero eta gehiago entzuten dugu arazoa ez dela turismoa bera, gailentzen den eredua baizik. Norabide horretan, turismo sostengarria kontzeptua gure egunerokoan sartu da eta askok marketing estrategia bezala erabiltzen dutela esan genezake. Zer izango litzateke turismo sostengarria, ze elementu barnebildu beharko lituzke eredu batek sostengarria izateko?**
Gizartearen beharrei erantzuteko garatzen den turismo eredua litzateke, gure ustez, eta lekuan lekuko egoera zehatzera egokitu behar dena. Definizio orokor gisa, turismo iraunkorrak, iraunkortasun ekologiko, sozial eta ekonomikoari erantzuteko ardura du, baina ezin dugu ahaztu turismoaren industria garatu gabe zegoen herrialdeetarako sortu zela hasieran eta beraz, gure gizarte ereduan txertatzeko ezinbestekoa dela dimentsio sozial, kultural eta ekologikoak aintzat hartzea. Hau honela, gure



BIZIBIZIKI

**IDURRE LUCAS EZKIOGA** (Hernani, 1984) natura-turismoa eta turismo iraunkorra lantzen duen Bizibiziki aholkularitzako kidea da. Ikerketa turistikoan eta turismo iraunkorrean aditua eta antropologoa da

ustetan **ezin dugu turismo iraunkor bakarraz eta bera osatzen duten elementu finkoez hitz egin.**

Aipatu bezala, eta definizio orokor gisa, turismo iraunkorrak elementu hauek barnebiltzen ditu:

- **Turismo iraunkorrak inguru ekologikoarekin bat egin behar du,** oinarrizko prozesu ekologikoetan lagundu eta aniztasun biologikoa eta inguruaren kontserbazioan eraginez. Maiz inguru naturalak bisita motibazio nagusia direla gogoan izan behar dugu.
- **Gizarte anfitrioien berezkotasun soziokulturala errespetatu, bere erakargarritasun kulturak eta arkitektonikoak babestu eta interkul-**

turalitatearen tolerantzian eragin behar du.

- Epe luzerako bideragarritasun ekonomikoa bermatu behar du, aberastasunaren banaketa orekatua bultzatu, lan aukera iraunkorra edo epe luzekoak eskaini eta pobrezia gutxituz zerbitzu sozialen hobekuntzan eragin.

*Bizibizikik* dimentsio instituzionala edo gobernantza eredua ere gehituko luke, ezinbestekoa baita paradigma berri bat mahai gaineratzea turismo iraunkorraren klabeetan lan egiteko.

**Turismoaren inguruko eztabaidak ixteko gehien erabiltzen den argudioetako bat enplegua eta aberastasuna sortzen duela da, baina oro har, sortzen duen enplegua tamalgarria da, eta aberastasuna oso gutxiren artean banatzen da. Ze bitarteko jar daitezke turismoak herritarrontzat onuragarria izateko? Posible al da hori?**

Herritarrentzako onuragarria den turismoak, lehenik eta behin, herritarren parte hartzea behar du. Herritarrak turismoaren industrian subjektu aktiboak gara eta, beraz, parte hartzea bultzatzea ezinbestekoa da. Bestetik, eta aurretik aipatu bezala, herri bakoitzari egokitutako turismo eredua bultzatu beharko litzateke eta ez eredu bakarra, inguru naturala, soziala, kulturala, ekonomikoa edota instituzionala ezberdinak diren heinean.

Bestalde, planifikazio turistikoa klabe iraunkorretan bultzatzea ezinbestekoa izango da eta eredu kolaboratzaileetan oinarritutako esperientziak mahai gaineratzea. Baita tokiko enpresa txikien behar eta interesi begira lanean aritzea ere.

Bai, posible da, baina turismoa herritarren zerbitzura eta interesetara jartzeak gure irakurketak herritarren beharrizanetan oinarritzea eskatzen du, eta ez soilik bisitarien kopuruan edota indikatzaile ekonomikoetan. Ikuspuntu honetatik, gobernantza ereduak ere ezinbesteko papera izango luke.

> “Turismo iraunkorrak, iraunkortasun ekologiko, sozial eta ekonomikoari erantzuteko ardura du”

> “Herritarrak turismoaren industrian subjektu aktiboak gara eta, beraz, parte hartzea bultzatzea ezinbestekoa da”

> “Kultura gutxituen testuinguruan, turismo iraunkorra izan daiteke turismo aukera posible bakarra”

**Herritarren zein tokiko administrazioen parte hartzea oinarri izan duten proiektu desberdinak gidatu dituzue. Zergatik jotzen dute zuengana batez ere? (masifikazioa, auzokideak molestatzea...?) Ze parte hartze eduki beharko lukete herritarrek eurei eragingo dien turismoaren diseinuan? Jar dezakezue adibideren bat?**

Proiektu ezberdinak garatu ditugu, baina gehienak turismo estrategia berriak martxan jartzeko izaten dira. Hala ere, azkenaldian inguru masifikatuetan bisitari eta bertakoen arteko kudeaketa edota inguru naturalaren azterketak ere burutu ditugu. Instituzioek eta jendarteak turismoaren inguruko kontzientzia eta ezagutza handiagoa dutenaren seinale garbia da eta turismoak sortu ditzakeen kalteak ere irudikatu daitezkeela orain.

Diseinuari dagokionean, eta arestian aipatu bezala, ezin dugu herritarren parte hartzerik gabeko estrategia iraunkorrik irudikatu. Aurrera eramandako proiektu edo prozesuetan, erantzuna oso ezberdina izan da esperientzia bakoitzean. Bisitarien inguruan arazoak sortzen diren herrietan, hala ere, parte hartzea altuagoa izaten da, normalean.

**Hizkuntza eta kultura gutxitu bat da gurea. Ze onura edo kalte ekar diezazkioke turismo eredu honek? Nola saihestu kultura edo folklorea merkantzia bihurtzea, turismoa erakartzeko ekimen desberdinetan egin den bezala?**

Kultura gutxituen testuinguruan, turismo iraunkorra izan daiteke turismo aukera posible bakarra, baina honek ere bere mugak eta kezkak mahai gaineratzen ditu. **Euskara eta euskal kultura, kultura biziak dira eta horrek erakargarritasun berezi bat sortzen du egun.** Ezinbestekoa da, beraz, kultur espresio ez materialen eta turismoaren arteko harremanak tentuz lantzea. Kontuan izan behar dugu elkarte kultural eta sozialak direla ondare ez materialaren kudeatzaile nagusiak, eta beraz, kudeaketa eta koope-



BIZIBIZIKI

razio harremanen ikuspuntutik lantzea ezinbestekoa izango da.

Euskarari dagokionean, argi dago turismoak beste hizkuntzen presentzia areagotzen duela gure herrian eta asko antzematen da herri txiki euskaldunetan ere. Zenbait herritan euskara turismoaren erdigunean kokatzeko lanean ari dira eta iniziatiba ezberdinak sortu dira zentzu honetan.

**Ingumenari egindako kaltea da turismo eredu honen beste korapiloetako bat. Nola eman diozue buelta edo ze hausnarketa eman dituzue proiektu desberdinetan?**

Buelta eman baino, gure lanaren erdigunean kokatzen dugu eta horrek errealitate horri erantzuteko aukera eskaintzen digu. Erdigunean kokatzeak bestalde, turista kopuruari erreparatzea baino, gure ondarearen egoera eta ezagutzan oinarritutako irakurketa egitea dakar eta oraindik oso urruti kokatzen gara errealitate horretatik. Karga gaitasunaren kalkulua azken helburua ez bada ere, inguru naturalen kontrolerako oinarri bezala izan dezakegu.

Bestalde inguru naturala eta aisialdiaren inguruko kudeaketaren inguruan kezka handia dago egun eta turismoak hemen duen papera zehaztea ezinbestekoa da. Natur ingurune babestuak (eta ez babestuak ere) ulertzeko moduak aldatu egin dira eta garapen iraunkorrerako elementu sozial eta kulturalak ere beharrezkoak dira. Testuinguru honetan, turismo iraunkorra aukera bezala aurkezten da, baina ingurunearen babesarekin uztartzea ezinbestekoa da. Ikuspuntu honetatik, kudeaketa eredu berriak mahai gaineratzea garrantzitsua da.

> “Euskara eta euskal kultura, kultura biziak dira eta horrek erakargarritasun berezi bat sortzen du egun”

> “Inguru naturala eta aisialdiaren inguruko kudeaketaren inguruan kezka handia dago egun eta turismoak hemen duen papera zehaztea ezinbestekoa da”

**Zuen ustez, gure berezitasun eta baliabideak aintzat hartuta, zeintzuk dira Euskal Herrian turismo sostengarria bultzatzeko gakoak? Turismo sostengarria posible al da?**

Lehenengo gakoa lurraldea bera prisma iraunkorrez lantzea da eta iniziatiba pribatu edo publiko iraunkorraz harago, jomuga turistikoaren iraunkortasuna lantzea. Honek, jomuga turistikoa herritarren beharrei erantzuteko zuzendua dagoela esan nahiko du, eredu inklusibo eta irisgarria bultzatuz.

Bigarrenik, aurretik aipatutako dimentsio eta klabeak txertatzea ezinbestekoa izango da, Euskal Herria jomuga turistiko bakarraz irudikatzearekin batera.

# “Para el Estado español las Balears sólo somos una máquina de generar dinero, le da igual todo lo demás”

**DAVID AVRIL HERVÁS** (Inca, Mallorca, 1975) es responsable de formación y debate de las fundaciones Darder-Mascaró, vinculadas al espacio de izquierda ecosoberanista de las Balears. Es licenciado en Geografía e Historia y doctor en Educación. Fue uno de los fundadores del partido ecosocialista IniciativaVerds, que formó parte del embión que creó MÉS el 2013. Ha sido diputado por MÉS per Mallorca en el Parlament autonómico desde el 2013 hasta que dejó el cargo la pasada primavera.

**Desgraciadamente la imagen que tenemos de las Islas Baleares tiene demasiado que ver con las playas paradisiacas que nos venden las revistas de viajes o famosísimas discotecas. Pero esa postal invisibiliza la realidad de un pueblo sin estado, ¿cual es esa realidad?**

Son muchas las realidades que quedan invisibilizadas, más allá de la cuestión identitaria (que además es compleja porque las islas somos pueblos, en plural). Sobre todo, la de una sociedad en la que tras la fachada de la primera línea y una imagen de prosperidad hay tremendas desigualdades sociales y una presión sobre el territorio y unos recursos naturales más que limitados por nuestra condición geográfica. En términos sociales y económicos, hemos pasado en poco más de medio siglo de la autarquía y la supervivencia, a la vanguardia de la globalización capitalista, de la que somos un campo de pruebas, y esto tiene consecuencias. Si a eso añadimos la falta de soberanía en el manejo de los recursos económicos y una escasa soberanía política agravada con estos años de recentralización con el PP en el gobierno del Estado y un extractivismo que incluye entre sus formas la corrupción política, imagínate. Los récords de turistas conviven con récords de desigualdad social, de brecha salarial entre mujeres y hombres, de consumo de drogas, de abandono escolar y tantos otros indicadores de emergencia social.

**Los últimos años las consecuencias del turismo en las islas tanto a nivel económico, político como social han sido muy sonadas: imágenes de gente durmiendo en sus coches, trabajadores que rechazaban plazas por el precio del alquiler, los salarios miserables... ¿Cómo os afecta tanto a nivel micro como macro el turismo?**



## David Avril Hervás
Darder-Mascaró Fundazioak




Somos una sociedad que además de vivir del turismo, vive "turistizada", en el sentido que el turismo condiciona las relaciones sociales, la cultura, lo identitario… lo condiciona todo. Desde el punto de vista económico, el turismo es lo que explica que incluso en los años de crisis a partir de 2008 el crecimiento demográfico haya sido positivo y la inmigración no haya cesado, con un crecimiento constante de la población escolar, por ejemplo, del 10% anual… ¿Cómo se gestiona eso con unas cuentas intervenidas? Pero además, el turismo ha concentrado tanto la actividad económica alrededor de su actividad, que todo lo demás, tanto la agricultura como la industria, han sido reducidas a lo testimonial. Nos hemos convertido en una economía de servicios, en la que además de más precariedad que en otros territorios se da con un mayor equilibrio entre sectores, hay otro elemento de vulnerabilidad, y es la creciente financiarización de la economía turística. El turismo es también un mundo de especulación, con sus propias burbujas que si llegan a explotar, en nuestro caso sería dramático, porque alguien se lo jugó todo a una carta.

**Las medidas adoptadas por el nuevo gobierno balear no han sido menos sonadas. ¿Cómo se ha desarrollado el proceso de cambio de gobierno*, de debate social entorno al tema y posteriormente la ratificación de la nueva ley sobre el turismo? ¿Cómo se está llevando a cabo su implementación?**

Como soberanistas, ecologistas y de izquierdas, desde el principio tuvimos claro que para estar en el gobierno era estratégico gestionar el turismo, porque otros compañeros de pacto no se hubieran atrevido a tanto. El primer reto era romper una dinámica en la que históricamente, durante más de veinte años de gobiernos del PP y algún paréntesis de centro-izquierda, había una Consejería de Turismo, pero **las políticas públicas de turismo estaban absolutamente subordinadas a los intereses de los grandes lobbies** hoteleros. Piensa que empresas como Barceló, Melià, Iberostar… Son todas mallorquinas, o Matutes y los Fiesta en Eivissa. Son *lobbies* no sólo a nivel local, sino a nivel mundial, con presupuestos y poder superiores a los de una simple Comunidad Autónoma. El impuesto de turismo sostenible (ITS) como una de las primeras medidas del pacto de gobierno fue no sólo algo necesario y con mensaje -el turismo debe contribuir a la sostenibilidad social y ambiental-, sino un pulso de poder con los hoteleros, que ganamos porque teníamos y tenemos un apoyo social importante, de hecho este año se ha duplicado la cuantía del impuesto y no ha pasado nada, porque además las plusvalías en el turismo son tremendas. **El segundo reto fue regular el alquiler turístico o alquiler vacacional, algo menos popular porque hay un discurso interesado sobre la "economía colaborativa"** cuando uno de los resultados del alquiler turístico ha sido una mayor presión en los precios de la vivienda, dificultando el acceso a un bien básico. Hemos llegado a la paradoja de falta de personal de todo tipo, en muchos sitios, desde trabajadores turísticos a profesionales sanitarios, porque no pueden pagar una vivienda. Aprovechamos la regulación para poner un techo de plazas turísticas y ahora se está trabajando en otras regulaciones, como la del "todo incluído", siempre en la perspectiva de la soberanía sobre las políticas y el hori-

zonte de la sostenibilidad y la prosperidad compartida. También se han hecho cosas importantes, como luchar contra la explotación laboral y ayudar a visibilizar problemáticas como las camareras de pisos de los hoteles (las *kellys*), y se ha acompañado el proceso de negociación de un convenio de hostelería que es de referencia para todo el Estado con aumentos del 17% de los salarios.

**¿Puede ser el turismo sostenible a largo plazo? En un territorio tan pequeño que lleva tantos años dirigido a ese sector, ¿cómo y hacia donde podría redirigirse la economía?**

El turismo es, de entrada, una actividad insostenible. Imagínate a todo el mundo haciendo turismo. En nuestro caso, el día que se contabilicen a nivel local las emisiones de CO2 de los aviones, será un escándalo, porque nos visitan más de 15 millones de turistas al año cuando tenemos una población estable de poco más de 1 millón. En China están empezando a tener problemas porque la clase media empieza a hacer turismo y claro, 100 millones de chinos haciendo turismo interior generan un impacto difícil de manejar. Vivimos en la paradoja de tener que gestionar lo que hay, reorientándolo hacia un menor impacto ambiental y una mayor prosperidad social, un mayor reparto, y equilibrando también el peso del turismo en beneficio de otros sectores económicos, con unas competencias más que limitadas. Por ejemplo, nuestra capacidad de incidencia sobre los puertos y aeropuertos, nuestra principal puerta de entrada a las islas, es nula, y eso a pesar de que nuestro Estatut habla de "cogestión". Pero para el Estado español las Balears sólo somos una máquina de generar dinero, le da igual todo lo demás. En cualquier caso, la palabra clave es transición. Pensar todo lo que hacemos, como las leyes de cambio climático y de residuos que hemos puesto sobre la mesa, en clave de transición ecológica y social, pero sabiendo las limitaciones que tenemos.

"Los récords de turistas conviven con récords de desigualdad social"

"El turismo condiciona las relaciones sociales, la cultura, lo identitario... lo condiciona todo"

"Piensa que empresas como Barceló, Melià, Iberostar... son todas mallorquinas"

"Este año se ha duplicado la cuantía del impuesto y no ha pasado nada, porque además las plusvalías en el turismo son tremendas"

"Nuestra capacidad de incidencia sobre los puertos y aeropuertos, nuestra principal puerta de entrada a las islas, es nula"

"El soberanismo no puede ser, en nuestro caso, un proyecto identitario. La mitad de nuestra población ni siquiera ha nacido aquí, y somos una población muy diversa"

**¿Cómo se trabaja la identidad de pueblo, el soberanismo, en un territorio abarrotado de turistas? ¿Cómo luchar contra esa invisibilización de las problemáticas y vidas locales que conlleva el turismo de masas? ¿Cómo influye el procés catalán a este trabajo?**

El soberanismo no puede ser, en nuestro caso, un proyecto identitario. La mitad de nuestra población ni siquiera ha nacido aquí, y somos una población muy diversa en lo cultural y en las procedencias. Lo que sí intentamos trabajar es un nuevo sentido común colectivo, que incluya elementos identitarios que están amenazados, como la lengua catalana, pero también una identidad mallorquina que es plural y multicultural, que se aglutine alrededor de elementos que condicionan nuestras vidas como isleñas e isleños, y que son elementos que tienen que ver con la soberanía política: lo que te comentaba de la gestión sobre los aeropuertos, o la financiación autonómica, por ejemplo. Somos los que más aportamos y menos recibimos del sistema a pesar de los indicadores sociales que tenemos, y eso hace que en cuanto a educación, sanidad o servicios sociales, por muy buena voluntad política que tenga el gobierno de izquierdas, seamos ciudadanos de cuarta categoría en el Estado español. Es a partir de esto que se puede articular un proyecto social y político de cambio.

**Seguro que las islas se llenan cada años de miles de euskaldunes de vacaciones. ¿Qué nos pediríais mientras estamos visitando vuestra tierra?**

Que disfruten de este paraíso nuestro, pero que a la vez lo respeten porque no somos un parque temático, somos un pueblo digno con un territorio frágil, que tiene mucho que mostrar y compartir con el mundo, más allá de la imagen del turismo de masas, de alcohol y de *balconing* con la que se nos asocia en demasiadas ocasiones. Y que como todos los pueblos del mundo, quiere vivir con dignidad.

# TURISMOAREN INGURUKO BORROKA BATZUK




Turismoa Euskal Herrian fenomeno berria ez bada ere, gero eta gune gehiagotan, gero eta modu nabarmenagoan azaltzen ari da. Bere hedapenak herritarron bizitzetan inpaktu anitzak dituzten prozesuak utzi ditu agerian eta hainbat gatazka piztu. Jarduera ekonomiko tradizionalen ordezkapena, herritarrak erdigunetik eta euren auzoetatik kanporatzea, zerbitzu publikoen xedea aldatzea, enplegua prekarizatzea, bizitza garestitzea...

Erritmo eta molde desberdinetan, turismo eredu hau auzitan jartzen duten mugimendu desberdinak sortzen hasi dira Euskal Herriaren luze-zabalean: Guggenheim museoko hezitzaileak bezala, turismo merkea euren kontura ordaintzen dela salatzen duten langileak; Ernaiko gazteek bezala, saltzen dituzten postalen atzean herritarrak daudela mahai-gaineratzen dutenak; hiriburuetako alde zaharretako auzo-bizitzan dituen inpaktuez erabaki nahi duten bizilagun-elkarteak; bestelako eredu bat sustatzeko prozesu-parte hartzaileetan laguntza eta aholkularitza eskaintzen duten Bizi-Biziki bezalako proiektuak; Larrun mendien bezala, turismoa erakartzeko sarraski ekologikoak gelditu nahi dituzten mugimenduak; fenomenoa ulertu nahi duten hamaika jardunaldi...

Adibide gutxi batzuk jaso ditugu hemen, baina mapa betetzen doa.